


1994ko maiatzak 6

234. zenb.

PRESS

ARRASATE

Elkarrizketa
**Juan
San Martin**



Udal aurrekontuak

SAN VIATOR IKASTOLA



Herriarekin batera
aurrera egiten

94 - 95 IKASTURTERAKO ESKAINTZA

- Bigarren hezkuntza (REM I, 14-16 urte)
- Natur eta giza zientziak
- Batxilergoa (16 - 18 urte)
- Moduloa: Bizigiro osasuna

ARRASATE PASEALEKUA, 10 TFNOA: 79 04 11

Europarrez hitzegin

Europar komunitatea osatzeko ahaleginetan Europako nazioen artean zenbait hitzarmen burutu da dagoeneko. Akordio ezagunenek ekonomiarekin zerikusia dute eta gizarte-komunikabideek sarri ematen digute honen berri. Arlo ekonomikoa garrantzizkoa bada ere, ez dugu ahaztu behar European dagoen aberastasun kultural anitza, beste kontinenteetatik migratutako taldeen kulturak kontutan izan gabe. Ildo honetatik doa egun hauetan irakurri dudana liburuxka, eta bertan hizkuntza minorizatuen Europar bulegoak, Europarrez hitzegitea zer den esaten digu.

Dakigunez, estatu-nazio modernoak, ideologia unitibertsalistan oinarriturik, hiritartasuna asmatu zuen, gizabanako guztiak, edozein taldetakoak direla ere, nazioan, edo geroztik nazioarteko komunitateetan eskubide berdinekin integratzeko gizabanako gisa. Europa adibidetzat hartzen bada, kultura, hizkuntza edo erlijiozko desberdintasunak oraindik ere irauten dutela bistan da. Europa ikaragarri aberatsa da bere herri, kultura, ohitura eta hizkuntza aniztasunean. Europarrok ehun hizkuntza baino gehiago hitzegiten dugu. Italian, adibidez, italieraz gain hamahiru hizkuntza autoktono dago. Frantzian, berriz, miloika pertsonen hitzegiten dute frantsesa ez den hizkuntzaren bat: bretoiera, okzitaniara, euskara, alzasiarra, flamendarra, korsoa, katalana. Baina badakigu, eta ondo jakin ere, bi hizkuntza talde daudela: maioritarioak eta minoritarioak, ingelesa, espanyola, alemaniera, ... aurkitzen dira maioritarioen artean; gaelikoa, euskara, friulera, ... minoritarioetan. Halere,

mota batekoa zein bestekoa izan, hizkuntza guztiak hitzunaren behar guzti-guztiak bete ditzakete eta hizkuntza guztiak gizateriarentzat aberastasun dira.

Pertsona askok hizkuntza bat baino gehiago hitzegiten dute. Elebidunak elebakardunak baino gehiago direla esan daiteke. Elebitasuna definitzea gauza konplexua da eta adibide batzuekin zehatz daiteke kontzeptu honen esanahia: batzuek hizkuntza biak amahizkuntza bezala erabiltzen dute; beste batzuek hizkuntza bat ulertu eta hitzegiten dute baina nekez ulertzen dute bestea; beste zenbaitek, berriz, nahiago dute hizkuntza batean hitzegin baina bestean idatzi. Guzti hauek elebidun dira baina maila desberdinetan.

Irakaskuntza oso garrantzizkoa da hizkuntzarentzat. Esan daiteke hizkuntza minoritarioak birbalaratzeko ezinbestekoa dela hauen presentzia irakaskuntzan. Horregatik geroz eta haur gehiagok dute minorien hizkuntza eskolan ikasteko aukera. Hezkuntza elebidunak motibazio anitz izan ditzake: ekonomikoa, kulturala, ingurugirokoa eta abar. Hezkuntza elebidunak badu hezkuntza elebakarraren aldean zenbait abantaila. Hona hemen bi: hizkuntza desberdinak dakizkiten pertsonen giza-sentiberatasun handiagoa dute antza, elebidun izateak hirugarren, laugarren edo bosgarren hizkuntza ikasteko biderik egokiena dirudi.

Esandakoaren arabera, europarrez hitzegitea, orain artekoaz jabetzeaz gain, nor bere herriko hizkuntza ikastetik abiatuz eleaniztasunera jotzea litzateke, dudarik gabe. Eta hau lortu ahal izateko hezkuntza elebidunak sekulako abantaila eskaintzen du.

MATILDE SAINZ OSINAGA



Memesa

79 42 22



Alkoholarekin arazoak daukazu?

Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak


3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Oلابarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Inguurigiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko marrazkia: Leire Zubikarai

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa


Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE



Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

Mesedez!!

Azkeneko ARRASATE PRESS iritsi zitzaidanean, lehendik ezagutua nuen aurkikuntzaren gaineko aipamen zabala irakurri ahal izan nuen. Santa Barbarako gaztelua izan ei zenaren oinarriko hormak aurkitu dira, bertan izandako indusketa-lanak direla eta.

Ongi. Arkeologoek badute gai euren ikerpenetan jarraitzeko, oso zirriborrotua dugun gure historiaren zirrikituetatik barrena egin ez. Agian, poliki-poliki, ertarourreko erreferentzia murrizak aberasten joan ahal izango da.

ARRASATE PRESSEKO aipamenak, dena den, garraztasuna ekarri du berriro ere nire baitara, erabilitako kontzeptuak okerrak direlako. Baina txarrena ez da hori, huts berberetan behin eta berriz jausten ari garelako sentazioa baizik.

Izena ipini diote gazteluari: "bere ustez hori zen gazteluaren benetako izena". Txantxa bat izatea nahi nuke. Onomastika ez da hain diziplina merkea. Eta, dudarik gabe, izenarenari bere garrantzia eman behar zaio... zentzu osoan eta horretarako datuak direnean.

Fundo la villa de Arrasate: Kasu hau are larriagoa da. Ostikada galantak ematen ari gataizkio gure historiari —historia txikiari— ditugun lehen erreferentziak zeintzuk diren ere ez dakigularik.

Lehenik eta behin, jaun-andreak!, Alfontso X.ak ez zuen "la villa de Arrasate" sortu, "Montdragon"eko baizik.

Horren ostean, artikuluan irakur daitekeen ondorioa askoz arriskutsuagoa deritzait, bi arrazoiengatik:

1.- Gazteluaren izena ez zen zergatik izan behar hirriarena.

2.- Montdragon izena ipini aurretik eta 1260eko sortagirian irakur daitekeen, hiriko izena Arrasate zelako.

Udal artxiboetan gorde dagoen dokumentazioari esker dakigu hori. Eta oso oker ez banago, Arrasate izena agertzen den lehen aldia 1334ko ekainaren 6ko data daraman dokumentuan irakurtzen da, Alfontso XI.ak sinatutakoan, hain zuzen.

Edozein euskaldunek daki, Arrasate hitzetik Arrasatera pasatzea oso erreza dela, ahozko hizkeran. Eta inolako dudarik gabe, Arrasate da gure herriko gaurko izena, horrela ezarri baita gure terminologian. Baina ez nuke berdina esango, Alfontso X.ak sortagiria eman aurrekoari buruz.

Ni ez naiz historiagile aditua, irakurle aplikatua baizik. Eta horregatik pentsatzen dut, historiari zintzotasunez begiratu behar diogula, ondorio zuzenak ateratzeko.

Hori dela eta, bidezkoa iruditzen zait, Arrasateko Udalak gure herriaren izenen gaineko ikerketa-lana eratzea. Izenen diot, izan ere

Arrasate ezezik Mondragón deitura bera ere hamaika espekulazio eta istorio irragarriren iturburua bilakatu baita, mendetan zehar. Behin eta betiko, finka ditzagun historiaren arrazoiak.

JOSEMARI

VELEZ DE MENDIZABAL

Eskerrikasko

Gutun honen bidez, Harkaitz Aperribairen familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu une gogor haue-tan lagun izan zaituztegun guztioi. Eskerrik beroenak erori zen lekura bila joan zinetenoi, Naparrena baserrikooi, eta hileta elizkizunetan izan zineten guztioi. Bihotzez eskerrak Jo ta Sue, Biheko, AED, Gazte Mobicie, Txalaparta taldea, dantzari eta gainerako lagun guztioi.

"APERRI"REN FAMILIAK

Aurreko zenbakian Arrasateko gazteluari buruzko artikuluan zenbait akats egin genituen, Jose Mari Velez de Mendizabalen gutunean eta Ana Ugaldere artikuluan ageri denez:

1.- Urteaga arkeologoak ez du gazteluak "Arrasate" izena izan zezakeenik esan: Arrasate izena jarri diote, aurkikuntzaren izen zientifiko moduan.

2.- Alfontso X.a "Jakintsuak" zera idatzi zuen: "Fundo la villa de Mondragón en Arrasate".

3.- Gazteluaren oina ez da "Cooper" estilokoa, baizik eta "Cooper" katalogoan agertzen den oina da.

Barka hankasartzeak.

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK

77 08 15

Estresatuta bizi zara?



Jesus Mari Vazquez Langilea (22 urte)

Ez naiz estresatuta bizi. Lana egiten dut, baina gauzak trankil hartzen ditut.



Pilar Vitienes Langilea (25 urte)

Batzutan bai. Izan dudan egunaren edo momentuan ditudan arazoaren arabera, estresatuta egoten naiz. Kasu horietan aguantatu eta aurrera jotzen dut.



Enrike Aguado Langabetua (24 urte)

Orain ez dut lanik egiten, beraz, ez naiz estresatuta bizi. Udan lan egin nuen eta orduan bai, sentitzen nintzen apur bat estresatuta.



Manuela Arjonilla Etxekoandrea (56 urte)

Orain ez, baina lehen bai. Familiaran asko gara eta garai batean ilundu arte lan egin behar izaten nuen. Orduan estresatuta bizi nintzen.




Angel Martinez Gelmako langilea (56 urte)

Egun batean egin ezin ditudan gauzak, hurrengo egunerako uzten ditut. Horregatik, ez naiz estresatuta bizi.



Arantzazu Isasmendi Fagorreko langilea (37 urte)

Astean zehar, bai. Kanpoan lan egiten dut eta ondoren, etxeko lanak egin behar izaten ditut. Astebukaeran kirola egiten dut eta horrek asko lasaitzen nau.



Simon Urizar Jubilatua (74 urte)

Ez, ni trankil bizi naiz. Gaztea nintzenean lan asko egin behar izaten nuen baina orduan ere, ez nintzen urduri jartzen.



Igone Mendizabal Ikaslea (16 urte)

Examin garaian estresatuta egoten naiz, baina beste-la ez.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Mendi
taberna

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igualetoia 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutzegoria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larnaldiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak 45 87 44

Udaltaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 12 01 62
 Gasas 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburategia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 6
 Egunez 22.00ak arte: Corcuera. Musakola.
 Gaeuz: Guallar. San Antonio.

Larunbata 7
 Egunez 22.00ak arte: Irizar. Erguin.
 Gaeuz: Estella. Matxiategi.

Igandea 8
 Egunez 22.00ak arte: Amezua. Santa Marina.
 Gaeuz: Estella. Matxiategi.

Astelehena 9
 Egunez 22.00ak arte: Ruiz. Magdalena.
 Gaeuz: Mozos. Pedro Deunaren.

Asteartea 10
 Egunez 22.00ak arte: Morales. San Andres.
 Gaeuz: Camacho. Oxirondo.

Asteazkena 11
 Egunez 22.00ak arte: Azkoaga. Ferrerias
 Gaeuz: Puy. Barrenkale.

Osteguna 12
 Egunez 22.00ak arte: Español. Iturriotz.
 Gaeuz: Guallar. San Antonio.

6 OSTIRALA

ZINEA
 «Philadelphia». 7etan eta 10etan.

DIPOSITIBA EMANALDIA
 «K2 Ipar Ertzea» Felix eta Alberto Iñurrategik. Amaia antzokian, arratsaldeko 7.30etan. Besaide M.E ak antolatuta.

MUSIKA
 «Blues Feder». Elorriko Arriola kultur aretoan, 22.30etan.

ANTZERKIA
 «Las aceitunas». Corazón de Encina taldeko umeen antzerki taldeak, antzetzuko du, 6.30 etan izango da. Eta 22.30etan nagusiagoak beste antzezlan bat egingo dute: «Puebla de las mujeres».

ERAKUSKETA
 Maiatzaren 6tik 22ra, Kepa Altube, «Kopiren», pintura erakusketa. Arresi aretoan. Ordutegia, egunero 6tatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

IPUIN LEHIAKETA

Arrasateko Udaleko Hezkuntza eta Emakumearen udal sailak ipuin lehiaketa antolatu dute. Gaia: «ikusten duzu gaurko gizartean neska-mutikoen arteko desberdintasunik?».
O.H.Oko 6., 7. eta 8. mailako ikasleei zuzendua. Hiru eta bost folio bitartean idatzi behar dira. Ipuinak euskaraz idatzi behar dira. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 27an bukatuko da.

MATERIALA SALGAI

Araba euskaraz aldeko materiala salgai AEDn: Kamisetak, motxilak, txiskeroak, txapak....

7 LARUNBATA

ZINEA
 «Philadelphia». 5etan, 7.30etan eta 10etan.

ZINEA
 «Mucho ruido y pocas nueces». Elorriko, Arriola kultur aretoan, 22.30etan.

TXANGOIA
 Txangoa mendiko bizikletaz. Irteera goizeko 8.30etan Musikolako kiroldegitik. Ibilbidea Arrasateko baserri auzoetan zehar, amaieran luntxa izango da. Besaide M.E. ak antolatuta.

KULTUR ASTEA
 Corazón de Encina elkartearetoan. Ekintzak: goizeko 12etan play-back jaialdia, eguerdiko ordu batean erregina eta ohorezko damei ikur adierazgarriak ezarriko zaizkie, arratsaldeko 3etan haur jolasak, 5etan folklore jaialdia eta gaueko 9'30etan bazkideen afaria.

BERTSO AFARIA
 Apotzan bertsolari gazte eta helduak, Nikolas Seguioren omenez. Apatzako Auzo Etxean, Gaueko 8.30etan



BERTSO AFARIA

Apotzan bertsolari gazte eta helduek, Nikolas Seguioren omenez. Apotzako Auzo Etxean, larunbat, gaueko 8.30etan. Giro paregabea.

8 IGANDEA

'ZINEA
 «Philadelphia». 5etan, 7.30etan eta 10etan.

HAUR ZINEA
 «Solo en Casa». Amaia antzokian, arratsaldeko 5etan. Sarrera 200 Pta.

HERRI URRATS
 Senperen, Iparraldeko ikastolen aldeko jaia.

MENDI IRTEERA
 «Leintz bailarako 7. Mendi Itzulia». Irteera goizeko 7etan Portaloitik. Ibilaldia Untzilla, Kurtzeta, Gatzaga, Leixargarate, Degurixa, Urkulu eta Arrasate. Besaide M.E antolatuta.

KROSSA
 Otalazelaiko krosa, goizeko 11etan, Aretxabaletako Urkulu urtegian.

KULTUR ASTEA
 Corazón de Encina elkartearetoan. Arratsaldeko 4etan mus eta domino txapelketen finala.

GAISOEN EGUNA
 Pertsona gaiso eta helduei Untzioaren Sakramentua eman-go zaie, San Juan Bataiatzearen parrokian, 11etako Meza Nagusian.

9 ASTELEHENA**ZINEA**

«Philadelphia». 7etan eta 9.30etan.

10 ASTEARTEA**ZINEA**

«Philadelphia». 7etan eta 9'30etan.

ERAKUSKETA

Gizakia Helburuk antolatuta, pintura erakusketa. Maiatzaren 10tik, 30era. Monterronen. Ordutegia, egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

11 ASTEAZKENA**12 OSTEGUNA****ZINEA**

«El Niño que Gritó Puta». Amaia antzokian, gaueko 9.30etan. Sarrera 300 Pta, gazte txartelarekin 250 Pta.

TXATXILIPURDIREN UDALEKUAK

Udaleku irekiak, Arrasateko 1.go mailatik 8. mailararteko gazte-txoentzat. Udaleku naturzaleak, Arrasateko 5. eta 6. mailako neska-mutikoentzat. Izenemateak ikaste-txeetan edo Txatxili-purdi-AED elkartean, maiatzaren 13a baino lehen.

**GERONTOLOGIA IKASTAROA**

ICTEK antolatuta. Gaiak: adinekoen osasun psikikoa; nola zaindu aitona amonak eta euren beharrak. Hasiera, ekainean. Izen ematea 796211 edo 770500 telefonora deituta.

BEGIRALEAK

Ortzadar Atxabaltako Atsedentaldeak, 1994ko Udaleku irekitan parte hartzea nahi duten begiraleentzat deialdia zabaldu du. Udalekuak bi txandatan banatuko dira eta izenematea maiatzaren 5ean zabaldu zen eta 12ra arte izango da. Informazio gehiagotarako deitu 790184 zenbakira.

EGUN MUNDIALA

Maiatzeran 14ean, Arrasateko Trikitixa Eskolak antolatuta. Ekintzak egun guztian zehar. Eguerdiko 2etan Garagartzako Auzo Etxean bazkaria izango da. Bazkaria joan nahi baduzu, txartelak maiatzaren 7a baino lehen erosi. Txartelak salgai Hiren. Prezioa, 1500 Pta.

EGUNKARIAREN JAIRAKO AUTOBUSAK

Maiatzaren 15ean, Euskaldunon Egunkariaren aldeko jaia ospatuko da Billabonan. AEDk autobusak antolatu ditu bertara joan nahi dutenentzat. Txartelak Hiren, Iturriotzen eta AEDn salgai. Prezioa 800 Pta.

ae kanpada
DIMAKO AIREPORTU ZAHARREAN Maiatzak 20,21,22

AEKANPADA

Maiatzaren 20, 21 eta 22an, Dimako aireportu zaharrean. Akanparadako eta autobuserako txartelak salgai Hire eta AEKn.

IBAI-ARTE SARIA

Kanpoko lore apaingarrien lehiaketa. Arrasateko erdikaldeko balkoi, lehiu edo miradore politenei emango zaie saria. Lau sari daude. Sari honetan parte hartzeko epea maiatzaren 4tik uztailaren 6ra arte dago zabalik.

ARRASATE-OÑATI KROSA

LAIXAN eta AEDk antolatuta. Maiatzaren 15ean. Izenematea Arrasate Kirolak dendan eta AEDn, maiatzaren 12a baino lehen edo maiatzaren 15ean Monte tabernan.

“Azken bost urteotan euskalgintzak ezagutu duen dinamika berriaren emaitzarik ezagunena, ezpairik gabe herri aldizkariena da.

Fenomeno berria eta aberatsa, bestela euskara idatzia-ekin harreman txikia duen hainbat jenderi, kontaktu hori erraztu diena.

Herrietako euskara taldeek, ARRASATE PRESSEko ereduari jarraiki, herrietan zegoen hutsunea betetzen jakin dute. Ondo jakin ere”.

Kike Amonarriz-ek

JAKIN

“Iaz ez genuen tontorri lortu. Penatxo horrekin geratu ginen. Aurten bi helburu ditugu: batetik ea tontorra lortzen dugun (hau ez da lehendabiziko helburua izango, sekundarioa baizik); helburu nagusia gauza polit bat egitea izango litzateke. (...) Mendian nagoenean, etxean hobeto egongo nintzatekeela pentsatzen dut egunero, eta etxean nagoenean beti iruditzen zait mendian hobeto egongo nintzatekeela. Hau oso izaera inkonformista daukadalako da. (...) Ni ez naiz mendira bizia arriskatzera joaten eta anaia ere ez. Gertatzen dena, arriskua baino gehiago, beharbada zer aurkituko duzun segurutasun eza eta kezka dela. Noski, ehuneko ehunetan mendia segurua denean eta pausoz pauso dakizunean zer egin behar duzun, emozioa falta zaiola, eta alderantziz gertatzen bada sekulako emozioa sortzen da”.

Felix Inurrategik

Ikasmendi

“Arrasate Telebistaren audientziak, euskara hutsean emititu arren, biztanlegoaren %85.5a hartzen du. Datu horrek animatu egin ditu bertako arduradunak, ARKO (Arrasate Komunikabideak) elkartekoak orain lau urte zerrailen herria euskaldundu eta kanpotarrak integrazteko asmoz abiarazi zuten proiektuarekin jarraitzea. Orditik, gainerako proiektuek jarraitzen duten eredia bihurtu da, herri mailako ikusentzuteken aktibitatean izan duen arrakasta ikusita”.

Olatz Ariztizabalek

EL MUNDO
- PAIS VASCO

LORATEGI
Iturriotz, 7
arrasate
Tñoa: 79 04 67


M
MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekaria
Arrisku gerentea
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.
Boulevard, 11 5º-A
Tfñoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA
Erdiko kale, 4 Behea
Tfñoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

Zer da apostasia? Zer egin behar da apostata izateko?

Apostasia, fede katolikoa ukatzea da. Batzuk ez dugu sinismenez kristauak izan nahi, horregatik, katolisismoaren partaide izaten ez dugula jarraitu nahi eskatuko diogu elizari.

Txikitatik gehienok bataiatuta gaude, baina erabaki hori ez genuen guk hartu, bakoitzaren nahia kontutan hartu gabe egin zen hori. Horren ondorioz, jende asko dago elizaren zerrendan eta horretaz baliatzen da eliza. Elizak dirua eskatzean, bataiatuta daudenen zerrenda aurkezten du eta era horretan, probetxu handiago ateratzen du. Gure ustez, bakoitza aske da sinismen katolikoa praktikatzeko baina besteok ere, elizaren zerrendetatik kentzeko eskubidea izan behar dugu.

Garai batean posible zen apostata izatea. Lehen zibilez ezkondu nahi zuena, elizak berak behartzen zuen apostata izatera. Ondoren, eskubide hori kendu egin zen. Orain, apostata izateko kanpaina hasi dugu hainbat talde desberdinek. Horrela, Arrasaten adibidez Biona, Jaizale eta Gaztetxean, apostata izateko bete behar diren paperak jarriko ditugu denen eskura. Agiria betetzea erraza da, bataioaren data eta norberaren ohizko datuak idatzi behar dira bakarrik. Hori egitera bultzatu gaituzten arrazoiak zeintzuk diren ere ez da azaldu behar, papera bete behar da bakarrik. Ondoren agiri horiek apezpikutzara bidaliko ditugu eta gero, herriko parrokiara bidaliko dituzte. Elizako arduradunek agindu dutenez, eliza ukatzea erabaki dutenen izenekin erregistro sekretua osatuko dute. Jakina, guzti hori nola egin azaltzeko, mahai informatiboak ere jarriko ditugu.



Jose Ramon Landa

“Apostasiaren aldeko”
taldeko partaidea.

OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerías, 28-A. Tfñoa: 79 02 79 ARRASATE

Lore lurrindegia

Olarke kalea, 10 ARRASATE fñoa: 79 14 99

Fagorreko batzar orokorrak

Joan zen ostiralean, Fagor Arrasatek batzar orokorrak egin zuen. Fagor Arrasaterentzat iazko urtea ez zen ona izan, krisia asko igarri baitzen eta azken bost urtetako salmenta txikiak izan dituzte. Zapatuan, Fagor Ederlanek egin zuen batzar orokorra. Ederlanek automozioaren alorrean lan egiten du eta Eskoriatzako plantan 900 langile daude lanean. Batzarrean azaldu zuten, iaz irabaziak izan zituen Ederlanek, 312 milioi eta salmentak ere gehitu egin ziren.



Zapatu tristea

Apirilko azken zapatua tristea izan zen arrasatearrentzat. Zapatu goizean, Harkaitz Aperribai Unamuno, 15 urteko gazte arrasatearra, istripuz hil zen. Harkaitz "Aperrik", mendiko bizikletan ibiltzera irten zuen eta goizeko 11.45ak aldera, hilda aurkitu zuten Naparrena baserriaren inguruan. Itxura denez, bizikletako orkila apurtu eta lurrera erori egin zen. Erorketaren ondorioz, aurpegia eta buruhezurra apurtu zitzaizkion eta segituan hil egin zen. Arkaitz Almenen I. REM ikas-ten ari zen eta herrian oso ezaguna zen, Txalaparta taldeko eta Jo Ta Sueko partaide baitzen. Hileta elizkizunak igandean izan ziren, eta jende ugari hurbildu zen San Frantziskora. Goian bego.

Euskal Nortasuna eztabaidagai

Euskal Nortasunari buruz euren ikuspuntua azaltzeko, pertsonaia desberdinek hitzaldiak ematen jarraitzen dute Eskola Politeknikoan. Astelehenean Jose Antonio Sainz, Donostiako orfeoia- ren zuzendaria eta Ruper Ordorika abeslaria hurbildu ziren. Asteartean, berriz, Xabier Unzurrunzaga, Donostiako Arkitektura Eskolako zuzendaria eta ostegunean Xabier Lete.

Jende gutxi Amaia

Azken hamaika urtetan egin den bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udal desberdinek antolatuta, Europako dantza garaikide talde oneneta- rikoek, Gipuzkoako herri desberdinetan egingo dute dantzan maiatzean zehar. Joan den zapatuan eta lehenengo aldiz gainera, "Maiatza Dantzan" izeneko dantza emanaldietariko bat Arrasaten izan zen. Amaia antzokira, Madrileko "Diez & Diez Danza" dantza taldea hurbildu zen. Taldea madrildarrak eskainitako ikuskizuna kalitate handikoa izan arren, oso jende gutxi hurbildu zen antzokira.

JAIOTZAK

- Irati Perez Garcia. Apirilaren 29an.
- Maialen Urrutia Alday. 30ean.

ESKONTZAK

- Francisco Javier Iglesias Fernandez & Susana Alvarez Martin. Apirilaren 30ean. Elizaz.
- Atanasio Murillo Hidalgo & Rosalina Caballero Pozo. Apirilaren 30ean. Elizaz.

HILDAKOAK

- Gabriel Okina Zeziaga. Apirilaren 29an. 74 urte.
- Manuel Carrasco Tejado. 29an. 68 urte.
- Harkaitz Aperribai Unamuno. 30ean. 15 urte.

Deba Garaia Inmobiliaria



Inmueble eta finantza agentzia

Maalako Arrabala, 31 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 02

**M
I
T
A
R
T
E**



Nekazalturismoa

Etxeko berezitasunak & Euskal janariak & menua edo karta & Mendiko irteerak & Urkulun pasioak & eta gaua iristen denean... logelak!



Areantza auzoa. Tfnoa: 79 17 51

**G
A
R
A
I**



JULIA MONGE*

Etxeko langileak zer?

Lan gutxiago egin, denok lan egiteko!... ados, baina... Zer moduz denok lana egiten badugu lan gutxiago egiteko? Hau da Emakumeen Asanbladak luzatzen duen proposamena - maiatzaren 1 honetan denon buru eta diskurtsoetan egon balitz!-, berria ez delarik, batek baino gehiagok ez du ulertuko zertaz ari garen... Nork ez daki leku bat badagoela, etxea deiturikoa, lana banatzen ez delako pilotzen direna?

Nork erabaki du zenbait kolektiboren (umeak, adinekoak, gaixoak, gutxituak...) ardura emakumeena dela hutsik, nahiz eta hauek etxean zein etxetik kanpo lan egin?... orain ulertzen duzu?... Denok lan egin dezagun lan gutxiago egiteko!

Lanaren antolaketari buruzko proposamen gehienek ez dute aintzakotzat hartzen emakumei sozietate patriarkaletan eta beren egoera subordinatuagatik sortzen zaizkien arazo zehatzak eta bereziki, bizi profesional etengabea eta besteen zainketa - gaur egun arte emakumeen ardura -

tartekatzeak dituen zailtasunak.

Egoera hau aztertu ondoren, ondorioa hau da: emakumeak gizonak ez beste planu baten daude, eta hau, berez, bada nahiko arduragai gure historian urrats bat aurrerantze egin nahi duen edonorentzat.

Hipokrita eta ustela da emakumeentzat berdintasuna eskatzea ardurazko lanpostuetara heltzerakoan, gero inork ez bagaitu "betiko" emaku-

.....
Hipokrita eta ustela da emakumeentzat berdintasuna eskatzea ardurazko lanpostuetara heltzerakoan gero inork ez bagaitu "betiko" izan diren ardura piloetaz liberatzen

meenak izan diren ardura piloetaz liberatzen, -hauek liberatzeke beti prest egon behar dugularik -; aitzitik, gizonaren prestutasuna bere lanarekiko jakintzat ematen zaio bere nagusiengandik inongo arazorik gabe (bidai bat egiterakoan, adibidez) eta umeak baditu zein bere amarekin bizi bada, ... ez dago arazorik! norbait arduratu da arazotxo horietaz.

Non aurkituko dugu, bada, bere neurri egokian etxeko eta konpoko lanak nahasiko dituen formula? Alemanian, Italian... jada azaldu dituzte zenbait proiektu gai honetaz. Bere luzera eta zailtasuna kontutan harturik, hemen bi zertzelada azalduko ditugu, norberak bere ondorioak atera ditzan:

— Gurasoentzat sei ordu-tako lan iharduera legalaren ezarrera. Lana ordainketa osoaz - hauen barne aseguru sozialari dagozkion ordainketak ere -. Horrela, aitek zein amek, desabantaila ekonomiko barik egunero bi ordutako lizentzia edukiko lukete, beti ere 12 urtetik beherako umeak zaintzerakoan.

— Gurasoentzako babespeko lan iharduera zatikatua. Horrek, umeak zainduko litzatekeenaren, aitaren edo amaren, lan ihardueraren laburpena ekarriko luke, lan ordainketa osoz eta behin ezarritako iharduera zatikatua bukatu, iharduera osozko lanpostura itzultzeko eskubideari eutsiz.

Ez da erraza, ez. Proposamen batek zein besteak baditu bere zailtasunak, duda-mudak, aldeko eta kontrako arrazoiak... baina azaltzeak berak ere eta arazoa kontutan izateak badu berezko garrantzia, gutxienek urrats bat emanik dago konponketarako bidean.

ARRASATEKO EMAKUMEEN ASANBLADAKOA

USTEAK USTE

ETXE BILA

Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea bereziki bultzatu nahi ei du Jaur-laritzak, udalerrietan eraikitzeko dagoen lurzoruaren ehuneko bat horrelako etxeak egiten erabiltzera behartuz. Ez dago gaizki.

Etxe gehiago eraiki eta nork erosirik ez dela egongo esaten dute batzuk. Oraindik lehen etxea hartzeko dauden gazte asko dagoela eta horientzat sortu beharra dagoela ere bai, beste zenbaitek. Baina herrian hutsik dauden etxeen errola egin zenean atera ziren datuak ere esanguratsuak dira: 600 etxe baino gehiago hutsik. Jabe askok eta askok arazoak izan dituzte maizterekin, eta burukomina baino, nahiago dute etxea hutsik. Beste askok, berriz, Arrasateren hiriburu izaerari heldu nahi dio, "estudianteentzat bakarrrik" oharra jarritz etxeko alokatzan dutela iragar-tzean. Jakina, dozenerdi poltsikok errazago ordaintzen dute batek edo bik baino eta lotsagarritzko prezioetan jarri dira etxeak inguruotan.

Ondo deritzot etxe berria nahi duenari erosteko erosotasunak emateari. Ondo deritzot bere etxe zaharra konpondu nahi duenari dirulaguntzak emateari, alde zaharra, auzo historikoak, eta abar berreskuratzeari ere bai. Baina horietan sartzen ez den gazte asko dago, eta gurasoen etxetik jubilatu aurretik aldegingo badute, beste "babes ofizial" klaseren bat asmatu beharra dago.

ARANTZAZU LOIDI

Begoña

lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

**Hilbera
kafetegia**

Urbarri Etorbidea
ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37




Ferrerias. 79 87 62

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



Kontentzioa nagusi

Ostiral arratsaldeko plenoan onartuko dira 94ko Udal aurrekontuak. 93ko irailean hasi zen prozesua, eta normalena urte amaierarako hurrengo urtekoa erabakita izatea litzatekeen arren, aurten ere ez da lortu. Hurrengo aurrekontuak urte amaiera aurretik erabakitzeko konpromezua hartu ei du, dena dela, batzordeak.

Aurrekontuen atzerapenaren arrazoia adostuak izan daitezten egiten den ahalegina izango litzateke, izan ere, prozesu luze horretan zehar batzorde bakoitzak bere asmoen proposamena egin, gero murrizketak ezarri, atzera batzordeetan aztertu eta dokumentu bateratu bat lantzen jardun dute, aurten gastu arruntaren kontentzioa eta borondatezko dirulaguntzak %10era murriztea mugatzat harturik. Baina normalean dokumentu finko bat barik, gerora aldaketak egiteko moduko zerbaite behar luke izan. Gobernu Batzordeko hiru alderdiek (HB, EAJ eta EAK) eta EuEk hartu dute parte aurrekontuak lantzen, eta PSOE ez da gai horretan sartu. HBk, EAJk eta EuEk enmendakinak aurkeztu dituzte (ikus alboko zutabea).

Pleno berean beste 21 puntu ere badira, eta ikusi egin behar aurrekontuetan debate sakonik sortzen den.

AZPIMARRATZEKOAK

Aurtengoan azpimarragarri, zerbitzu moduan, aparkalekuen esplotaziorako gutxituen kontratazioa, emakumearen arloa eta Ongizate sailean gizarteko arlo marginalen ganako arreta gehitzea.

Inbertsioetan ez da larregirik aurrikusten, Diputazioetik diru gutxiago datorrelako, Arrisku Konpartitua dela eta, eta Udalak berak dituen baliapideak handituz ez da goelako. Aurten gainera, Uherkapekoa izango da oztopo handi bat (125 milioitik gora), gerora berreskuratuko den dirua izango den arren.

UrPartzuergora egin beharreko ordainketa (72 milioi) ere berria da. "Udal honek hezkuntzan gastatzen duen kopurua ere aipagarria da, eta tendentziak jarraitu egingo du" batzordeburuaren esanetan. Bestelakoan, orokorrean kontentzioa da ezaugarri nagusia, "herri bati bizitasuna ematen dioten elkarrean kaltetan, baina errealitate honen aurrean besterik ezean". (Ikus informazio zabalagoa erdiko gehigarrian).

Zorpetzeari %15ean eusten ahaleginduko da Udala, Diputazioari itzuli beharrekoa sartuz gero %19ra ere iritsiko den arren, legeak onartutako %25etik behera hala ere.

Enmendakinak

Herri Batasuna

- Parrokia berritzeko partidaren aurka, aurreko urtean bezala: Dirulaguntzak beste era batera bilatzearen alde.

EAJ-PNV

Memoriari:

- Aurtengo ekitaldian pertsonal finkoa kontratatzearen aurka.
- Udal Irratirako elementuen adjudikazioa Frekuentzia baimean lortu arte atzeratzeko proposamena.

Aurrekontuei:

- Udaltzaingorako inkorporazio berrien aurka.
- Herriko Jai nagusietarako gastuan auzoetan bezala %10eko murrizketa egiteko proposamena.

- Uherkapeko frontoia hormarekin batera egitearen aurka, problema sozialak eta segurtasunekoak tarteko. Bitartean, frontoian Gaztelekuaren proiektua eta araudia egiteko proposamena.

- Herriko plaza berritzea: Plaza hobetzearen alde, muskarako kioskoa egiteko proposamena.

- Ingurugiro zona integratua: DAR/HGAN egitea eta Mugarritteko oinezkoen bidearekiko lehentasunez.

- Egunkariaren akzioak erosteko partida kentzea.

Euskal Ezkerra

- Uherkapeko frontoia egitearen aurka, aurreko urtetan bezala.

- MCMren erosketaren aurka, garestia delako.

- Eskola Politeknikoari Udal tasatan ordaindu beharrekoa dirulaguntzatan ematea.

JoSTEKO


OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA



JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFATEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



Fagorreko batzorde gestorea, MCCtik ateratzeko eskaera egiteko aukera aztertzen ari da.

Fagor MCCTik irtetea eztabaidatzen

Asteazkenean, Fagor Kooperatiba taldeko batzorde gestoreak batzarra egin zuen langileekin. Eztabaidagaien artetik batek berebiziko garrantzia zuen, izan ere Fagor taldea Mondragon Korporazio Kooperatibotik ateratzeko eskaera egiteko aukera aztertu zen. Mila Larrañaga eta Joseba Ugalde, Batzorde gestoreko partaideen esanetan, MCCk azkenaldian hartu dituen erabakiek eraginda, aukera honi buruz hitzegin izan da Fagor taldeko enpresa desberdinetan. Euren ustez

MCCk, Fagor taldea sakabanatu egin nahi du eta gainera Korporazio Kooperatiboak hartutako hainbat neurrik, partehartzea, solidaritatea eta erreferenduma oztopatu egin nahi dituzte. Batzorde orokorrak onartu egin du MCCtik irteteko erabaki posiblearen inguruko eztabaida hastea. Orain organu sozial eta kolektiboek eztabaida hasiko dute eta uztailan egingo den MCCren kongresu kooperatiboan, gai honen gainean erabakitakoa azalduko dute.

IGPen emaitza

IGPen emaitza jendearean publiko egin baino lehen, ostegunean "Egin" egunkariak emaitzaren datuak argitaratu zituen. "Egin"ek kaleratutako informazioaren arabera, gehiengo egun dugun errepidea hobetzearen eta bide bizkor bat eraikitzearen aldekoa da. Beraz, egunkariaren ustez, emaitza ez da autopista bakarrik egitearen aldekoa. LES Gizarteaz enpresako Luxio Ugartek ostegunean adierazi ziguenez, informazioa nahiko zuzena da. Gizarteaz enpresak ostegunean bertan entregatu zion IGPen emaitza Debasari, Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioek osoturiko elkarteari. Nahiz eta publiko egin baino lehen filtrazioak izan, Eduardo Araujo, Debasako prentsa aholkulariak adierazi digunez, euren asmoa datuak parlamentuan publiko egitea da, seguruenik maiatzaren 16 eta 22 bitartean. ARRASATE PRESSEko erredakzioa itxi aurretik Eginek kaleratutako datuen berri bakarrik genuen, baina seguruenik astean zehar ezagutuko da beste daturik.

Agricentro Otxoa



- **Nekazaritza:** haziak, ongarriak, produktu agrokimikoak etb.
- **Abelazkuntza:** pentsuak, botikak, abereentzako materiala, baserrirako tresneria etb.
- **Lorazaintzako produktuak:** ureztatzea, keramika, ongarriak, etb...
- **Etxeko animalientzako janariak:** (txakur, katu, txori eta arraintzakoak)

Musakolako Industrialdea, z/g.

Tfnoa: 79 86 70 - 79 17 79

ARRASATE

Txatxilipurdiren udaleku berriak

AED orain dela zazpi urte hasi zen uztailean haurrentzako udalekuak antolatzen. Baina aurren, espreski aisialdiko ekintzak antolatzeaz arduratzeko taldea eratu da, Txatxilipurdi, eta dagoeneko taldea hasi da uztaileko udalekuak prestatzen. Oraingoan gainera, eskaintza berriekin datorrigu Txatxilipurdi taldea. 14, 15 edo 16 urte dituztenentzat udako plan berezia prestatu dute: kirol ikastaroak, akanpandak eta beste ekintza batzuk. Hala ere, azken eskaintza honetan Biheko, Jo Ta Sue eta joan zen urteko udalekuetan izan zirenek bakarrik izango dute parte hartzeko aukera.

Bestalde, udaleku naturzalea ere izango da, espreski 5. eta 6. mailako gaztetxoek zuzendua. Udaleku horren helburu nagusia, ingurugi-



Txatxilipurdik antolatu ditu uztaileko udalekuak.

roarekin jarrera positiboa bultzatzea da eta ekintzak, herrian nahiz Udalako Ingurugiro Eskolan burutuko dira. Baina urtero moduan, Arra-

sateko 1. mailatik 8.era bitarteko gaztetxoentzat udaleku irekiak ere antolatu dituzte. Udaleku naturzaleetan edo udaleku irekitan parte hartu

nahi duenak, ikastetxean edo Txatxilipurdi elkarteetan (Pablo Uranga kaleko 6an) eman beharko du izena maiatzaren 13a baino lehen.



ETEO

ADMINISTRAZIO

+

INFORMATIKA

+

MARKETING

1994 - 95 KURTZOAN ESKEINTZEN DIREN IKASKETAK

IKASKETA ERTAINAK

Goi Mailako Batxilergoa

"Administrazioa eta Gestioa (I.E.E. II)" A eta D ereduak

Lanbide Heziketa

- Administrazio, Marketing eta Informatika arloak
- Hirugarren Mailako moduloak
- Gestio Programatzailea

Ikasketak hauek bukatu ondoren, Unibertsitate mailako "Enpresa Zientzietako ikasketak" bertan jarraitzeko posibilitatea dago (16-21 urte)

UNIBERTSITATE MAILAKO

IKASKETAK


Enpresa Zientziak

- Finantzak eta kontabilitatea
- Marketing eta Komertzial arloa
- Informatika

Aurreinskripzionako epeak
 • Ikasketak emaitzak: Maiatzaren 4tik 18ra
 • Enpresa Zientzietako: Maiatzaren 23tik
 ekainaren 24ra

INFORMAZIOA:

ETEO San Lorenzo auzoa z.g. Tfnoa: 78 13 11 - OÑATI



Balindan, Andoni Egaña bertsolariak Euskal Telebistan aurkezten duen saioan, Juan Jose Iturbe arrasatearrak parte hartu behar du. Epelde

Juan Josek Arrasateko euskararen berba egingo du eta nongoa den asmatu beharko du lehiakideak. Asmatuko ote du?




Manolo Pazos eta **Elena Hidalgo**, martxoaren 5an ezkondu ziren Dorletako Santutegian. Ezkon bidaian, Turkiara joan ziren. Zorionak!

Txatxilguztiren

1994-95 KURTZOAN ESKEMAN IKASKETA ERATAINAK UNIBERTSITATE MALAKA

Garagartzako Fagor lantegian teilatuko kristalak aldatzen ari dira. Guztira 3.500 kristal berri jarriko dituzte Bilboko Inkara etxeko langileek. Kristal bakoitzak 7.000pta balio du, beraz, kristal guztiak

aldatzea, 25 milioi pta kostako zaio Fagorri. Honez gain, teilatuan freno antzeko batzuk jarriko dituzte elurra egiten duenean elurrari eusteko eta bide batez, euria eta elurraren ondorioz agertzen diren arazoak konpontzeko.



lurrindegia perfumeria

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulua
- Bitxitegia
- Jostailuak

ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

“PAL”

burdindegia, brikolage eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



La Merced ikastetxeko ikasle izandakoek, bertan bizi izandako abentura eta istorio desberdinak berriro gogora ekarri guran, afari bat antolatu dute. Maiatzaren 21ean, larunbatean, egingo da afaria, baina izena eman gura

duzuen guztiok, maiatzaren 19a arte egin dezakezue Hire liburudendan. Afarira joateko deia, ikasle izandako guztientzat dago zabaldua eta ez argazkian agertzen zaizkigun emakumeentzat bakarrik.

Kaitin Allende arrasatearra, **Eva Robledo** bilbokoa eta **Jaione Guridi** gasteizeko nesken bisita jaso genuen Arrasate Pressen. Hiru neska hauek Leioan publizitate ikasten dute eta ikusentzute ikasgairako komunikabide lokalei buruzko erreportaia auzkeztu behar dutenez, ARRASATE PRESS, Arrasate Telebista eta Udal Irratiaren proiektua ezagutzera etorri ziren.



IZEN PROPIOAK

● Arrasateko EAJko junta berriko partaideak honako hauek ditugu: Lehendakaria

Ismael Errasti, lehendakari ordea **Antton**

Azurmendi, idazkaria

Izaskun Pujana, partaideak: **Sara Sagasta**,

Miguel Angel Mondragon, **Jose Luis Galdos**,

Juan Ramon Mendieta,

Jose Zulueta, **Iñaki**

Agiriano eta Manuel

Unamuno.

● **Amaia Agirianok**, 17 urte, Eskoriatzako Mendiolarrak, lehen postua lortu du Oñatiko Emilio Urzelai bertsolari gazteen lehiaketan. Amaia hainbat bertso txapelketetan parte hartutakoa da eta bailarako bertsolarien taldeko partaide dugu. Almenen ikasten du UBI.

IBARRA Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

UrIBE AUZOAN
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
Goizeko 9etatik 1a arte
TFNOA: 79 19 21

ARRASATEKO BATXILERGO INSTITUTUA

- Zer da Arrasateko Institutua?

– Institutua ikastetxe publiko, demokratiko, integratzaile eta autonomoa da. Bailarako gazte guztien zerbitzura dagoena eta kalitatezko irakaskuntza eskaintzen duena.

- Arrasateko Institutua bailarako gazteentzat dela esan duzu.

– Bai, halaxe da. Arrasaten dago baina bailarako gazte guztientzako Institutua da. Gurean, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Aramaioko ikasleak ere badira. Gazte horientzat, eguerdian etxera joatea denbora galtzea izango litzatekelako, ordutegi intentsiboa dugu. Horrela, ikasleek arratsaldea libre izaten dute, beste ekintzetara dedikatzeko.

-Noiztik ari da Institutua ikasleak hezitzen?

– Dagoeneko 16 urte luze daramatzagu ikasleak hezitzen. Denbora tarte honetan Institutua garai berrietara moldatuz joan da, eta gure ateak beti egon izan dira azken berrikuntzetara zabalik.

-Zer aldaketa ekarri dute berrikuntza horiek?

Alde batetik, hizkuntz perfilen eskaintza gehitu da. Institutuan euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua %50era heldu da. Era berean, euskararekin arazoak dituztenentzat erdibideko taldeak daukagu.



Maite Mozos Mujika

* ARRASATEKO INSTITUTUKO ZUZENDARIA

Batxilergoaren biderei jarraituz ikasgai berriak ere sartu ditugu: kultura klasikoa, elikadura, frantses komertziala... Gainera, nahiz eta orain arte Institutura sartzeko graduatu eskolarra behar zen, baina egun REM adarra ere badugunez, ziurtargiri hori barik ere

posible da Institutura sartzea

– REM eginez unibertsitatera sartzea posible da?

– Bai, posible da REM eginez ere unibertsitatera sartzea. Baina zalantzarik gabe, unibertsitatera sartzeko bide zuzenena batxilergoa eta UBI egitea da. 3. BUPen ikasgai

espezifikoak aukeratzen dituzte eta honela, unibertsitatean ikasiko dutenaren arabera prestatzen ditugu.

- Karrera aukeratzeko ordua heltzen denean, zelan laguntzen diezue ikasleei?

– Lehenengo mailatik aurrera, ikaslearentzat lagungari, tutoritza zerbitzua dago eta honetaz gain, gabinete psiko-pedagogikoa ere bai. Era honetan, garapenaren jarraipen zuzena egiten da. Ondoren, 2. mailan, zientzien bidetik ala letren bidetik joango diren aukera dezaten, test bat egiten diegu eta hitzaldiak ere antolatzen dira. Behin 3. BUPera helduta, UBI n aukeran izango dituzten lau adar desberdinak zeintzuk diren azaldu eta unibertsitatean ikastea pentsatu dutenaren arabera, horietako bat aukeratzen laguntzen diegu gabinete psikologikoaren lagutzaz. Jakina, Unibertsitate desberdinak bisitatzen ditugu eta unibertsitaterako aurre-inkripzioak ere Institutuan egiten dira.

- Bukatzeko, gazte bati zergatik gomendatuko zenioke instituturara etortzea?

Institutuan oso kontutan hartzen dugu ikaslearen parte hartzea. Ikasleek erabakiak hartzen dituzte, askatasun sentimendu horrek giro ezin hobea sortzen duelarik.

**16 URTETAN
ZE HAR
IKASLEAK
HEZITZEN**

Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Gero eta gutxiago falta

Asteburu honetan beroa izan da protagonista eta bero horren ondorioak ondo baino hobeto sufrituko zituztenak, Uribe auzoko eta zaldibarko jokalaria dira. Beroa gehi San Andres jaietako bixamona, hori bai nahastea! Nahaste eta guzti, neurketak jokatu egin ziren eta Uribe auzoko txapelketan 7. jardunaldia jokatu denean, gero eta argiagi daude gauzak. A taldean, aurreneko postuetan sailkatuta dauden taldeak gero eta distantzia haundiagoa hartzen ari direnez, gero eta argiago dago zeint-

zuk sailkatuko diren. B eta D taldeetan, aldeak ez dira hain nabarmenak, beraz, lehia bizia, seguru. Eta E taldean Los Dimmy 14 punturekin sailkapeneko errege dugu. Talde bakoitzetik 4 taldek bakarrik lortuko dute bigarren faserako txartela. Zaldibarren, berriz, bi neurketa besterik ez dira geratzen finalerdietarako, eta dagoeneko txapelketako onenak sailkatuta daudenez, zaila da pronostikoak ematea. Hemendik aurrera, garrantzitsuak bezain lehiatsuak izango dira neurketa guztiak.

**URRIN
EDARITEGIA**

Etxeko janari bereziak

Uribarri Etorbidea, 22 Tfnoa: 79 95 24 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 08 15

Zaldibarko Txapelketa



Uribe Auzoan, 4 neurketa gomen datzen dizkizuegu. Semen U'P - Borrock'n Roll (9 punturekin parekatuta), Jo Ta Akabau - Beti Gazte, Iturripe An jokatuko dira. Iturripe Bko, Lautherbrunnen - Belo eta Txapi, eta Los Dalton - Txeyenex. Zaldibarren 4 neurketa jokatuko dira eta guztiak dute garrantzia.

| A taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| TRIKITI | 1 | 1 | 0 | 0 | 4 | 1 | 2 |
| ARGI IBILI | 1 | 1 | 0 | 0 | 3 | 1 | 2 |
| MIKELOS | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 3 | 0 |
| PEPELUS | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 4 | 0 |

| B taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-----------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ZULOAK | 1 | 1 | 0 | 0 | 2 | 1 | 2 |
| FOSFOROS | 1 | 0 | 1 | 0 | 3 | 3 | 2 |
| IRATI STS | 1 | 0 | 1 | 0 | 3 | 3 | 0 |
| ARLUTZ | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 2 | 0 |

Uribe auzoa Txapelketa

A taldea

| | |
|-----------------|----|
| Lo + X | 10 |
| Corinto Taberna | 10 |
| Ola Tailerrak | 10 |
| Semen U'p | 9 |
| Borrock'n Roll | 9 |
| Altza porru | 6 |
| Kabiru | 5 |
| Lore Gazteak | 4 |
| Trotabares | 4 |
| Elisabeth | 3 |
| No Comment | 0 |

B taldea

| | |
|------------------|----|
| Bodisca | 11 |
| Nuevo taberna | 10 |
| Solano 7 mares | 8 |
| Yomai | 8 |
| Ke Oxtias! | 7 |
| Ganbelas | 7 |
| Berango sukald. | 6 |
| Sorgol | 5 |
| Bayern de Lenitz | 4 |
| Lokis | 2 |
| Atxanta que... | 2 |

D taldea

| | |
|------------------|----|
| Equs | 12 |
| Stocker's | 11 |
| Lautherbrunnen | 9 |
| Hirei | 8 |
| Belo eta Txapi | 8 |
| Top Hits | 7 |
| Mob. Arenaza | 5 |
| Estrella floja | 4 |
| Los insociables | 3 |
| Ezkinako hontzak | 2 |
| Exte Mobiliario | 1 |

E taldea

| | |
|----------------|----|
| Los Dimy | 14 |
| Beti gazte | 10 |
| Txeyenex | 9 |
| Fancy Bois | 8 |
| Jo Ta Akabau | 7 |
| Los Dalton | 7 |
| Excav. Lete | 6 |
| Kirten tropel | 5 |
| Auf dem Koffer | 2 |
| Los Garimbos | 2 |
| Borrock. Prom. | 0 |

JIVI

PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

SEAT

Udalaitz, S. A.




ADI!
2. Eskuko
autoak



Seat MALAGA
GOLF 1,2
GOLF GTD
GOLF 1,6

BI-5051-AY
BI-2840-AV
BI-7012-AY
SS-4821-AD

Musakola auzoa, z/g
Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25



Aurrekontuak 94

Zirriborroa

(94ko maiatzaren 6ko plenoan onartzekoa)

1994ko UDAL AURREKONTUAK

| | | |
|----------------------------------|----------------------------|----------------------------------|
| Udala | 3.013.390.209 | (iaz baino %0,8 gehiago) |
| AUKEA | 147.364.000 | (iaz baino %0,84 gutxiago) |
| Iturbide Egoitza | 164.245.000 | (iaz baino %2,58) |
| Aurrekontu orokorra | 3.189.057.109 | (iaz baino %1,04 gehiago) |

SARREREN AURREKONTUA

| | | |
|--|----------------------------|-------------|
| 1.KAP. Zuzeneko zergak | 431.450.000 | %14,3 |
| 2.KAP. Zeharkako zergak | 60.000.000 | %2,0 |
| 3.KAP. Tasak, etabar | 357.652.569 | %11,8 |
| 4.KAP. Transferentzia arruntak | 1.285.239.140 | %42,7 |
| 5.KAP. Ondarezko sarrerak | 49.000.000 | %1,6 |
| 6.KAP. Inbertsio errealak inorenganatzea | 118.000.000 | %3,9 |
| 7.KAP. Kapitalaren transferentzia | 211.048.500 | %7,0 |
| 8.KAP. Finantz aktiboaren aldaketa | 11.000.000 | %0,4 |
| 9.KAP. Maileguak | 490.000.000 | %16,3 |
| Guztira | 3.013.390.209 | %100 |

GASTUEN AURREKONTUA

| | | |
|---|----------------------------|-------------|
| 1.KAP. Pertsonal-gastuak | 614.643.505 | %20,4 |
| 2.KAP. Zerbitzu eta ondasunen erosketak | 477.737.865 | %15,9 |
| 3.KAP. Maileguen interesak | 156.208.947 | %5,2 |
| 4.KAP. Transferentzia arruntak | 552.297.258 | %18,4 |
| 6.KAP. Inbertsioak | 833.059.737 | %27,6 |
| 7.KAP. Kapitalaren transferentzia | 205.811.304 | %6,8 |
| 8.KAP. Finantz aktiboaren aldaketak | 11.886.500 | %0,4 |
| 9.KAP. Mailegu amortizazioa | 161.745.093 | %5,3 |
| Guztira | 3.013.390.209 | %100 |

- Auditoriak • Pertsonal aukeraketa • Zerbitzu laboralak •
- Bideragarritasun azterketak • Kontabilitatea •
- Zerbitzu fiskalak • Zerbitzu juridikoak



Otalora Lizentziatua, 4 etxabea
Tfnoa: 79 93 11 ARRASATE



GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ-SAIL

GOBERNU-ORGANUAK 27.045.399 (%0,9)

| | |
|------------------------------|------------|
| Pertsonal gastuak | 24.855.399 |
| Funtzionamendu gastuak | 900.000 |
| EUDELeke kuotak | 750.000 |
| Argitalpenak | 390.000 |
| Dietak eta bidaiak | 150.000 |

KULTURA ETA KIROLAK 308.185.984 (%10,2)

| | |
|-------------------------------------|------------|
| AUKEAren defizita | 87.000.000 |
| Mojategi | 50.000.000 |
| Pertsonal-gastuak | 41.892.684 |
| Arrasate Musikal | 36.000.000 |
| AUKEAko inbertsioak | 20.000.000 |
| Herriko Jaiak | 20.000.000 |
| Ondasun eta zerbitzu erosketa | 14.196.489 |
| Kultur Iharduera | 10.393.000 |
| Dirulaguntzak | 9.000.000 |
| Ekipamenduko inbertsioak | 5.000.000 |
| AED-Ludoteka | 4.752.500 |
| Santa Barbarako urbanizazioa | 3.200.000 |
| Txikilandia | 2.751.311 |
| Museo industrialak | 2.000.000 |
| Ikerketa zentrua | 2.000.000 |

HEZKUNTZA 319.090.050 (%10,6)

| | |
|---------------------------------------|------------|
| Ferixalekuko Ikastola | 90.000.000 |
| Umezaintza | 65.811.304 |
| Ihardueragatiko transferentziak | 62.294.085 |
| Udal eraikinetako inbertsioak | 37.944.551 |
| Eskola Politeknikoa | 25.000.000 |
| Ondasun eta zerbitzu erosketa | 19.650.159 |
| Pertsonal-gastuak | 18.389.951 |
| Hezkuntzarako subentzioak | 10.250.000 |

OSASUNA 192.167.453 (%6,4)

| | |
|--|------------|
| Iturbide Egoitzako defizita | 47.500.000 |
| Etkez-etxeko laguntza | 45.000.000 |
| Gizarte beharizanak | 38.000.000 |
| Pertsonal-gastuak | 32.941.969 |
| Ondasun eta zerbitzu erosketa | 8.246.000 |
| Hirugarren adina dirulaguntzak | 6.675.169 |
| Drogomenpeketasuna dirulaguntzak | 3.825.000 |
| Komisioaren iharduerak | 3.491.000 |
| Hirugarren mundua ONGen bidez | 3.000.000 |
| Elbarrituen garraio zerbitzurako | 1.500.000 |
| Udal tasen dirulaguntzak | 1.261.920 |
| Hirugarren adina iharduera | 1.195.000 |
| Iturbide Egoitzako inbertsioak | 1.000.000 |
| Emakumea dirulaguntzak | 1.000.000 |
| K.I.U.B.ekintzak | 980.000 |
| Babes etxea | 400.000 |
| Osasun arloko dirulaguntza | 667.395 |

HIRIGINTZA 679.457.464(%22,6)

| | |
|---|-------------|
| Uherkape-Obra subsidiarioak | 125.651.788 |
| Industri garapenerako inbertsioak | 63.845.000 |
| A-20 kooperazioz urbanizatzea | 60.000.000 |
| Pertsonal-gastuak | 58.345.400 |
| MCM erosteko | 40.000.000 |
| Ondasun patrimonialak erosteko | 40.000.000 |
| Ur eta saneamenduko inbertsioak | 40.815.000 |
| Honorario teknikoak | 27.000.000 |
| Parrokia konpontzeko | 25.000.000 |
| Hiri Zaharrerako plana | 20.000.000 |
| Cordoba y Oro urbanizatzea | 20.000.000 |
| Santamainako zabaldua | 20.000.000 |
| Kale argizatzea | 15.008.000 |
| Makatzena zirkunbalazioa | 15.000.000 |
| Zeharkaleko anexoa | 15.000.000 |
| Bideak asfaltatzea | 14.000.000 |
| Udal ondareko inbertsioak | 10.000.000 |

B E N G O A

LURRINDEGIA – BITXITEGIA – OPARIAK

Zerkaosteta, 5 -Tfnoa.: 79 28 85 – ARRASATE



GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ-SAIL

| | |
|--|------------|
| Bide publikoen urbanizazioa | 10.000.000 |
| Transferentzia arruntak | 6.668.776 |
| Maalako errotonda | 5.800.000 |
| San Andres plana | 5.000.000 |
| Beste batzuk kooperaz. urbanizatze | 5.000.000 |
| Topografia | 5.000.000 |
| Plan orokorra | 5.000.000 |
| Oinezkoentzako bidea | 5.000.000 |
| Mugarritteko oinezkoen bidea | 5.000.000 |
| Markoalderako bidea | 5.000.000 |
| Zaldibar atzekaldea errekueratzea | 4.000.000 |
| Aparkalekuak | 2.500.000 |
| Ondasun eta zerbitzuak erostea | 2.477.000 |
| Hiri ingurugiroa berreskuratzea | 2.000.000 |

PERTSONALA 273.311.393 (%9,1)

| | |
|---|-------------|
| Pertsonal-gastuak | 166.227.995 |
| Hezkuntza okupazionala | 21.093.398 |
| Enplegu iharduerako | 20.200.000 |
| Bulegoko materiala eta komunikazioa | 11.810.000 |
| Ekipamendua eta irudi korporatiboa | 11.000.000 |
| Notaritza eta erregistroa | 10.000.000 |
| Udal aseguruak | 7.000.000 |

AUZOAK 76.718.226 (%2,5)

| | |
|---------------------------------------|------------|
| Inbertsioak | 21.000.000 |
| Mendi-nekazaritzako inbertsioak | 20.000.000 |
| Baseri-bideak | 16.000.000 |
| Transferentzia arruntak | 14.057.596 |
| Auzoetako jaiak | 5.655.630 |

ZERBITZUAK 653.238.123 (%21,7)

| | |
|--|-------------|
| Pertsonal gastuak | 182.557.334 |
| Kale garbiketa | 86.000.000 |
| Mankomunitateko zerbitzuak | 79.555.789 |
| Ur partzuergoa | 72.000.000 |
| Inbertsioak | 57.275.000 |
| Parke eta lorategien mantenimendua | 55.000.000 |
| Argiteria publikoa | 27.080.000 |
| Ur-zerbitzurako erosketak | 19.800.000 |

EUSKARA 144.126.540 (%4,8)

| | |
|--|------------|
| Pertsonal-gastuak | 84.492.634 |
| Euskara Batzordearen subentzioak | 43.750.000 |
| Ondasun eta zerbitzu erosketa | 14.103.906 |
| Euskara Batzordearen ekintzak | 5.752.250 |
| Bekak | 1.280.000 |
| Egunkariaren akzioa | 500.000 |

GAZTERIA 21.695.537 (%0,7)

| | |
|-------------------------|-----------|
| Gaztedia ekintzak | 9.025.000 |
| Pertsonal-gastuak | 5.810.537 |
| Subentzioak | 5.000.000 |

FINANTZ ZORRA 317.954.040 (%10,5)

| | |
|--------------------------------------|-------------|
| Maileguen interesak | 156.208.947 |
| Diputazioari itzuli beharrekoa | 100.249.904 |
| Maileguen amortizazioak | 61.495.189 |



INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIA

Anboto

Iturriotz, 11 ARRASATE Tfnoa.: 79 20 48








KONTRATAK
irUROK
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 Bis
Tfnoa- FAX: 77 09 92
ARRASATE

San Lorenzo, 39 - Etxabea
Tfnoa: 78 21 82
OÑATI

EUSKALDUNON

J A I A ' 9 4



EUSKALDUNON **Egunkaria**

MAIATZAK 15 AMASA-BILLABONA

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK - KUKUBILTZO -
DULTZAINEROAK - TXARANGAK - HAUR JOKOAK - DANTZARIAK -
HANKAPALOAK - ERRALDOIAK - TRIKITILARIAK - TXALAPARTARIAK -
BERBENA - ESKOLAKO UME LASTERKETA - HERRI KIROLAK - GAZTEEN
ESKUPILOTA TXAPELKETAREN FINALA - GAZTEEN JOKO GARBI
TXAPELKETAREN FINALA - HERRI BAZKARIA - MAIXA ETA ITZIAR -
ROCK KONTZERTUA: TAPIA & LETURIA - ANJE
DUHALDE - EXKIXU - BERTSOLARI GAZTEAK

BELARRIRA

◆ **Ordutegia.** Uribe Auzoko txapelketan, ordutegiari dagokionez, aldaketa batzuk izan dira eta 11 etatik, ordu bata arte ez da txapelketako neurketarik jokatu. Izan ere, Corazón de Encina taldekoek 8 eta 9 urte bitarteko umeek futbito txapelketa bereziak joki dituzten bi ordu horiek eskatu zituzten eta antolatzailerik baimena eman zieten. Detaile polita.

◆ **Aholkutxo.** Uribe Auzoko txapelketan, Belo eta Txapi taldeak bainu ederra eman zion Etxe Mobiliariori, gezurra badirudi ere 10 eta 0 irabazi zien. «Etxe»koentzat aholkua: baloia borobila da eta aurkakoen ate barrura sartu beharra dago, ez ahaztu hurrengorako.

◆ **Epaileak.** Final Four-eko 2. jardunaldiko epaileak Canacho, Andoni, Perez eta Aizkora izango dira, antolatzailerik aukeratutako laukotea. Ea bada, nola portatzen diren. Finalerditan eta finalean, taldeek hautatuko dituzte epaileak.

EMAITZAK ZALDIBAR

A TALDEA

Pepelus 1 - Trikiti 4
Mikelos 1 - Argi ibili 3

B TALDEA

Arlutz 1 - Zuloak 2
Fosforos 3 - Irati STS 3

EMAITZAK URIBE AUZOA

A TALDEA

Lore Gazteak 5 - No Comment 2
Trotabares 6 - Elisabeth 4
Corinto taberna 2 - Lo + X 5
Semen U'p 3 - Kabiru 5
Borrock'n Roll 4 - Altza porru 4

B TALDEA

Ganbelas 2 - Yomai 4
Bodisc 3 - Bayern de Lenitz 5
Berango sukald. 4 - Nuevo taberna 4
Solano 7 mares 2 - Ke Oxtias! 6
Sorgol 6 - Lokis 5

D TALDEA

Top Hits 4 - ops insociales 0
Equis 7 - Stocker's 3
Lautherbrunnen 2 - Mob. Arenaza 2
Etxe mobil. 0 - Belo eta Txapi 10
Ezkinako hontzak 2 - Hirei 8

E TALDEA

Los Dalton 8 - Borrock'n roll Promesas 2
Los Dimy 6 - Txeyenex 4
Jo Ta Akabau 2 - Excav. Lete 1
Kirten tropel 1 - Beti Gazte 2
Los garimbas 2 - Auf dem koffer 6

ASTE BURU HONETAN

ZALDIBAR

Larunbata 7

Zaldibar

11.00 Fosforos - Zuloak
12.00 Arlutz - Irati STS

Igandea 8

Zaldibar

11.00 Mikelos - Trikiti
12.00 Pepelus - Argi ibili

URIBE AUZOA

Larunbata 7

Iturripe A

09.00 Solano 7 mares - Sorgol
10.00 Top Hits - Stocker's
13.00 Ganbelas - Bayern de Lenitz
14.00 Semen U'p - Borrock'n roll
15.00 Fanci boys - Excav. Lete
16.00 Corinto taberna - Kabiru
17.00 Etxe mobil. - Ezkinak hontzak
18.00 Jo Ta Akabau - Beti gazte
19.00 Yomai - Lokis

Iturripe B

09.00 Lore Gazteak - Elisabeth
10.00 Kirten tropel - Los garimbas
11.00 Ola tailerrak - Lo + X
12.00 Lautherbrunnen - Belo eta Txapi
13.00 Borrock'n roll promes. - Auf dem koffer
14.00 No comment - Altza porru
15.00 Berango sukaldeak - Ke Oxtias!
16.00 Los Dalton - Txeyenex
17.00 Los insociales - Hirei
18.00 Estrella floja - Mobil. Arenaza
19.00 Atxanta que te merece - Nuevo taberna



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Pepelus 1 - Trikiti 4

Neurketako jaun eta jabe izan genuen Trikiti. Hasierako minutuetan aurretik jarri zen markagailuan, eta aurretik bukatu zuen. Pepelus taldeak, ahaleginak egin zituen arren, ez zuen egun ona izan eta ohorearen golarekin konformatu beharra izan zuen. Garaipen horrekin 2 puntu lortu ditu, beraz, Trikitik eta Pepelus taldea puntu barik dago.

Fosforos 3 - Irati S.T.S 3

Beharbada txapelketako neurketa biziena izan zen, emozioz beteriko neurketa. Azkenean berdinketa nagusi. Orain, sailkapenean, talde biek puntu bakarra dute



**A
R
L
U
T
Z**

Arlutz 1 - Zuloak 2

Borroka partidua izan zen, emaitzak adierazten duen moduan, oso parekatua hasieratik bukaera arte, eta aterako bidea trebetasun haundiagoz bilatu zuen irabazi zuen.

Mikelos 1 - argi Ibili 3

Argi Ibilik hasierako minutuetan, bi gol sartu zituen, eta Mikelo-sek markagailuari buelta emateko saiakerak egin arren, ezin. Mikelo-sek amore eman gabe, Sebasek gola lortu zuen, epaileak ere aldeko penaltia pitatu zion, baina berdintzeko aukera paregabea zuenean, kale egin eta Argi Ibiliren 3. ena etorri zen. Hor akabo partidua.

**M
I
K
E
L
O
S**



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

● *Juan San Martin*

Arartekoa, herritarron zaindaria

Juan San Martin, denetik egin duen gizona dela esan dezakegu. Liburuak idatzi ditu, euskal literatura eta bertsoaritzatik ikertu ditu, espeleologian trebea da eta ikastolaren sortzaileetarikoa ere bada. Baina gaur egun, Arartekoa delako da ezaguna. Dagoeneko gainera, bost urte bete ditu lan horretan. ATBra etorri dela aprobeztatzuz, berarekin izan gara bere lanaren berri ezagutzeko.

- Zein da zure lana?

Arartekoaren lana, administrazio publikoaren aurrean hiritarrak defendatzea da. Gobernu, diputazio, udal eta beste erakunde batzuen aurrean hiritarra babestea da nire zeregina. Legebiltzarrak aukeratzen du arartekoa, horregatik, horri eman behar diot nire eginkizunaren berri.

- Bost urte bete dituzu ararteko lanean. Zelan baloratuko zenuke urte horietan egindako lana?

Hutsetik hasi nintzen eta erakundea antolatzea lortu genuen. Urtetik urtera kexen

kopurua handituz joan da. Gure erakundea ezagutzera ematearren egindako lanak fruituak eman dituela adierazten du horrek.

- Zer geratu zaizu egin barrik?

Askotan, ezinezkoa izaten da nahi duzun guztia egitea. Gauza guztiek bere denbora behar izaten dute aurrera eramanez ahal izateko eta batzutan ez da astirik izaten. Adibidez, arartekoaren eginkizuna gehiago ezagutzera ematea nahi nuke. Lehen esan bezala, ahalegindu gara herritarrarengana hurbiltzen, baina oraindik badago zer egin.

- Arrasatearren batek aurkeztu du kexurik?

Bai eta uste baino gehiagok. Nik dakidala, Arrasate hoguei kexa baino gehiago jaso ditugu. Zorrotzak dira arrasatearrak.

- Arartekoaren bitartekotzak konpontzen du zeozer?

Askok uste duen baino arazo gehiago konpondu ditugu. Gertatzen dena zera da, konpondutako hainbat arazo askotan ezin ditugula argitara



eman. Legeak esaten duena bete behar dugu, horregatik, askotan ezin ditugu gauza batzuk argitara eman.

- Kexa bat aurkezteko zer egin behar da?

Ez da ezer berezirik egin behar. Zerbitzua dohainik da eta kexak, ahoz zein idatziz aurkez daitezke. Gugana jotzen duenari, izen-deiturak, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea eta aurkeztu nahi dituen agirien fotokopiak besterik ez dizkiogu eskatzen. Jakina, guztia sinaturik aurkeztu behar da eta euskaraz zein gaztelaniaz egin daiteke.

- Hizkuntzari dagokionez, euskarari buruzko kexarik jaso duzu?

Egia esan, oso gutxi jaso ditut. Ez dakit zorionez ala

zoritxarez izango den, baina arlo horretan uste baino kexa gutxiago jaso dugu.

- Eta arrazoa herritarrari ematen bazaio, beharturik dago administrazioa zukesandakoa betetzera?

Legeren bat hautsi badu, bai. Legearen aurka ezin da ez administrazioa ez beste inor joan. Bestela, zalantza badago, guk gomendatu bakarrik egin dezakegu, ezin dugu inor behartu.

- Herritar bezala, inoiz aurkitu zara Arartekoarengana joateko zorian?

Bai eta egin nezakeen neurrian aurkeztu nuen nire kexa administrazioaren aurrean.

- Orain behin behineko arartekotzan ari zara lanean, baina Legebiltzarrak berriro ere Arartekoa izatea eskatuko balizu, onartuko zenuke?

Oraindik ezin diot galdera hori erantzun, eskaria egingen badirate, orduan erantzundut.

● **“Askok uste duten baino arazo gehiago konpondu dugu, baina askotan ezin izaten ditugu argitara eman”.**



Jendeak kristau gazteei buruz okerreko irudia duela uste dute.

Gazte Kristauen jarrera

Maider Egües

Arrasaten konfirmazio bileretara joaten diren gazteen pentsatzeko eran arakatu nahi izan dugu aste honetan eta jende askok irudi faltsua duela ikusi ahal izan dugu.

San Frantziskoko eta San Juan parrokiako gazteekin egon gara, Arrasateko Gazte Kristau Taldeko partaide batzuekin. Lehenik eta behin, konfirmazioa ez dela jaunartzearen ondorengo pausoa argitu nahi izan dute gazte hauek: konfirmazioa Jaunartzearen ondoren datorren pausoa bada ere, berau egitea heldutasun eta fede pertsonalaren araberakoa da. Jaunartzea egin ondoren eta konfirmazioko gazteen artean, hutsune handi bat zegoen, ez zegoen jarraipen argirik. Orain, parrokiako gazte talde ba-

tek, "Denbora Librea" deritzon taldea sortu du jaunartzea egin duten haurrekin. Larunbatero biltzen dira eta era guztietako ekintzak burutzen dituzte.

KONFIRMAZIO ORDURAKO PRESTATZEN

Konfirmazio eguna edo ordua, ez da data konkretu bat; gaztea fede heldutasun batetara heldu dela ikusi behar du parrokoak eta gazteak berak ere guztiz prestatuta sentitu behar du pauso hori emateko. Parrokian, konfirmazio bileretako gazteek euren arazoak azaltzen dizkiete lagunei edo eta lanak egiten dituzte (Hies-ari eta drogei buruzkoa egin zuten). Oskarrek dioenez, bilera hauen helburua espresatzen ikastea da.

San Frantziskoko gazteek, Biblia aztertu ohi dute monitoreanekin, pasarte batzuri

azalpen praktikoa aurkitzeko. Azken aldiaren berriz, Jainkoaren bizitza eta eliza aztertzen ari dira, Kontxik dioen bezala, "eliaz esaten duen guztiarekin ez baikaude ados".

ZER EGITEN DA POST-KONFIRMAZIO BILERETAN?

Parrokian, konfirmatutako bi talde daude; San Frantziskon, ordea, bakarra. Parrokia bakoitzak gauza desberdinak egiten ditu bileretan: San Juan parrokiako post-konfirmazio taldeek, adibidez, "bizitza erreflexioak" egiten dituzte, hau da, bilera edozein partaidek egunean gertatu zaiona azaltzen du eta guztien artean komentatzen dute, erabaki bat hartzeko edo eta arazoa "epaitzeko". Euren helburua, arazo baten aurrean erabaki bat hartzen ikastea da. Bileretan,

Jose Mari Astigarraga parrokoarekin biltzen dira, ez dute monitorerik eta.

San Frantziskoko gazteek besterik egiten dute: Batzutan, Bibliako pasarte batzuk aztertu eta gaur egungo bizitzara aplikatzen dituzte eta beste batzutan, otoitz egiten dute kaperan denak elkarrekin. Benetako ordua, konfirmazio eguna heltzean izaten da: "konfirmatzea, bataioa onartzea da eta horregatik konfirmatzen gara. Baita fede indartzeko eta sinisten dugula erakusteko ere" dio Arantxak. "Barne sentimendu bat da; momentu horretan badakizu zer nahi duzun eta zure buruarekin pozik sentitzen zara" dio Eñautek, iaz konfirmatutako gazteak; "gero ospatu egiten dugu: luntxa, poteoa, afaria eta... juer-ga!" gehitzen dio Alejandrok.

Gure bilerak iraun zuen ordubetea, sentimentu eta

iritzi asko atera ziren argitara: kezkek, kristau ez diren gazteek eurretaz duten irudia, elizaren etorkizuna...

ZER ESATEN DIZUETE SINISTEN EZ DUTEN GAZTEEK?

Alejandro joan den urtean konfirmatu zen eta oso pozik dago, "Kristauak ez diren gazte batzuk desberdin ikusten gaituzte gazte erlijioso praktikanteak garelako, baina nire koadrilan, sinismendunak eta sinismenbakoak gaude eta ni konfirmatu nintzenez, denok zeuden oso pozik eta zoriondu egin ninduten".

"Nire ustez", dio Eñautek, "4 edo 5 urteko etapa kritikoa bat igaro berri dugu, konfirmaziora joaten zen edo kristaua zen gaztea izkutatut egiten zen nolabait. Orain ez, gaur egun ez gaituzte pertsona "arraro" kontsideratzen". "Errespetoa totala da" bukatzen du Nekanek.

ZER ESANGO ZENIOKETE SINISTEN EZ DUEN GAZTE BATI?

Eñautek hitz egiteko gogo handia du, ideia eta iritzi asko pasatzen zaizkio burutik: "Sinisten ez duen gazte batek beti egiten du eraso leku bereetik: Jainkoak ezin izan zuela lurra 7 egunetan egin eta horrelako sinplekeriak esaten ditu. Ez, noski! Hori "mitoa" besterik ez da, "Biblia metafora bat da", garai bateko jende ez jakinak ere erantzunak behar zituelako". "Nire ustez gure lana ez da inor konbentzitzen ibiltzea: zuk soka bat botatzen diezu eta hartu nahi badute, ondo dago" dio Arantxak. "Nire ustez" hasten da Kontxi, "zure izateko erarekin erakusten diozu pertsona bati zer den kristautasuna. Nik adibidez, nire izateko erarekin fedea eman dizkidan baloreak eta jarrera onak erakutsiko nizkioke, nola pentsatzen dugun ikus dezate".

“ Ez dut apaiz izan nahi: ez nuke neska utziko”

“ Sekulako etorkizuna ikusten diot elizari”

“ Konfirmazio egunean, “sei anaik zazpigarrenari” zioen opari plaka jaso nuen”

“ Badakit Jainkoak ez nauela sekula utziko”



Arantxa, Eñaut, Unai, German, Oskar, Alejo eta Jabier: kristauak.

ten”.

ZER EMATEN DIZUE JAINKOAK?

"Fedea beste inork eta ezerk azal ez ditzakeen gauzak azaltzen dizkizu" dio Eñautek, "Biblia irakurtzen dudan bakoitzean "aluzinatuta" geratzen naiz, lehengo adibideak gaur egungo kasuetara aplikatu daitezkeelako". Oskar oso ixila da baina galdera honen aurrean hitz egitera animatu da: "Oso arazo pertsonal bat daukadanean eta nire lagunei kontatu ezin die-danean, otoitz egin eta Jainkoak lagunduko didan konfidantza izaten dut". "Jainkorik existituko ez balitz, ni hutsik nengoke, zerbait faltan botako nuke. Oso agobiata nagoenez, badakit norbaitengan apoia naitekeela. Jainkoak ez nau sekula utziko".

Baina Eñaut ez da pertsona ona kontsideratzen eta ez du 10 aginduetan sinisten. "denok gara pekatariak eta nik ezin ditut enbidiak eta pentsamendu txarrak ebitatu".

ZEIN DA ELIZAREN ETORKIZUNA?

Arantxaren ustez, jendeak ez du informaziorik nahi eta krisi bokazionala dagoela onartzen du. "Jendeak beldurra dio etiketari" dio Arantxak. Baina Eñautek sekulako etorkizuna ikusten dio elizari: "Eliza gero eta razionalistagoa da. Mezetara joatea ez da dena, nahiz eta hori urrats garrantzitsu bat den. Beste gauza batzuk bete behar dira, gainera, gero eta gazte gehiago etortzen da mezetara. Etor-kizuneko eliza desberdina izango da baina hobea.

Asko diskutitu izan dut gai honen inguruan. Etiketa hori jartzen digute oraindik eta hori ez da oso eroso". Jabier ez dago ados: "Etiketa hori ona da, kristaua denak, kristau dela esaten joan behar baitu".



93-94 denboraldiko plantilla osoa

Azken garaipenarekin, Mondrak agur denboraldiari

Denboraldiko azken neurketan, Soduperen kontra neurtu zituen indarrak. Partidua oso ona izan ez bazen ere, 4 eta 2 irabazi zuen Mondrak. Beste batzutan ez bezala, Mondrako jokalariek aterako bidea, behin eta berriaz aurkitu zuten eta Aranburuzabala 3 golekin eta Moreno gol bakarraz, protagonista bihurtu zitzaizkigun. Denboraldia bukatzeko eta jarraitzaileei agur esateko modu bikaina.

GOLEN ERREPASOA

Denboraldia bukatzen

denean, beti bezala, balorazio eta datuen txanda etortzen da. Mondrak aurten oso denboraldi irregularra egin duela esan genezake. Lehen bueltan jokatu zituen 19 partiduetatik, 6 berdindu, 6 galdu eta 7 irabazi, eta 21 gol sartu ditu. Bigarren bueltan, beste horrenbeste norgehiagoka jokatu ostean: 4 berdindu, 4 irabazi eta 8 galdu, lortutako golei dagokienez 25 gol. Beraz, guztira 46 gol sartu ditu. Bestalde, denboraldi osoa kontutan izanda 42 gol jaso ditu, sartu dizkiote. Gol gehien, Ondarru eta Soduperen kontra sartu

ditu Mondrak, 4 gol partidu bakoitzean eta jipoi haundiena Aurr. de Vitoriarekin jaso zuen, 5 eta 0 galduz.

TXARTELAK

Dena dela, aurtengo denboraldiko protagonista nagusienak, lesioak eta txartelak izan dira. Txartelei dagokienez errekorra lortu du Mondra taldeak. Denboraldi guztian 120 txartel gorri nahiz hori ikusi ditu, 3 txartel partiduko. Txartel gorriak 18 izan dira eta gainontzekoak horiak. Txartel gorri gehien Madinak ikusi du(4), Kepa Azkuek (3),

Ramon, Iker Egaña eta Morenok (2), Ignazio, Aranguren, Aranburuzabala, Asier eta Gordobil (1).

GOLEGILEAK

Golegileei errepasoa emanenez, zerrendako buruan Aranburuzabala dago 12 golekin, Ikerrek 9 sartu ditu, Morenok 8, Ramonek 4, Azkuek 3, Leibak 3, Ibanek 2 eta Ignazio, Carrillo, Gordobil, Zuñiga eta Rubenek bana

ENTRENATZAILE BERRIA

Bestalde, Iñaki zeziagak, bi denboralditan zehar Mondra taldearen entrenatzaile lanak bete ondoren, ez du datorren denboraldian lan horretan jarraituko. Zeziagak Mondran egon zen lehenengo denboraldian, taldea play off-ean sailkatzea lortu zuen, denboraldi bikaina eginez. Bigarrenean ez du play off-ean sartzerik lortu, eta 10. postuaz 38 punturekin konformatu behar izan du, dena dela, Zeziagak denboraldian zehar izan dituen arazo guztiak(jokalarien lesioak, txartelak), ere ez dira ahaztu behar. Datorren denboraldirako entrenatzaile bosniarra izango du Mondrak, Nedza Zavijevic. Nedza Gorazde hiri bosniarrekoa da, 38 urte dauzka eta jokalaria zein entrenatzaile lanak bete ditu. 1992ko abendutik Eskoriatzan bizi da bere emaztea eta bi seme-alabekin. Nedzak, datorren astean hartuko du taldearen ardura.

Bukatzeko, laster arte eta eskerrik asko Iñaki Zeziaga, eta zorte on Nedza Zavijevic zure etapa berrian.



GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

PENALTIAK

● **Arrasateko Igeriketa taldeak, Ondarrun egin diren Udaberri kluban 3. jardunaldietan parte hartu du, eta lortutako emaitzak oso positiboak izan dira. Bestalde, Haritz Arrieta igerilari arrasatearrak, maiatzaren 7 eta 8an egingo diren Gipuzkoako txapelketetan parte hartuko du, 50 eta 100 metro libretan.**

● **Dorletako Amako txirrindulari kadete eta jubentilek lasterketa desberdinak izan dituzte. 2. mailako kadeteek Labe-garaietako lasterketan, J. Sedanok 3. postuan lortu zuen. 1 eta 2. mailako jubentilek Arantzazuko igoeran hartu zuten parte eta J.M Elizburuk, 2. postua lortu zuen.**

Arrasate Saskibaloi Taldeak azkenean ezin

Musakolan bildutako jendearen animo eta berotasuna ez zen nahikoa izan Arrasate Kirolak saskibaloi taldeak garaipena lortzeko. Azken emaitza, Arrasate 89 Askatua 96. Askatuak taldeak oso neurketa ona egin zuen, euren entrenatzaileak zioen bezala, denboraldian jokatutako onena. Arrasatek berriz, ez zuen oso ondo jokatu eta honez gain, jaia izan zitekeena izorratzeko, eta pitatu behar ez zena pitatzeko, Musakolako kantxan izan genuen Madinazkoitia epailea. Arrasatek partidua galdu arren, oraindik ez du Pontevedran, igoera fasea jokatzeko aukera galdu. Datorren larunbatean beste erronka garrantzitsu bat izan-



Datorren zapatuan erronka garrantzitsua izango dute

go du Getxo taldearen kontra. Orduan Arrasateko taldeak nahitanahiez irabazi egin beharko du. Hala ez balitz, beste taldeek egiten dutenaren zain egon behar-

ko genuen. Eta jakina, gure kabuz txartela ziurtatzen badugu, hobeto. Getxora joateko debaldeko autobusak egongo dira, zapatuan arratsaldeko 4.30etan.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 4- Sodupe 2
 2. regionala (kopa): Urki 0 - Mondra. 2
 Emakumeak (kopa): Mondra 1- Eibar-tarrak2.
 Jub. Ohorezko Liga: Santotomas Lizeoa 1 - Mondra 1. Jub, 2. maila: Kadeteak, 1. maila: Elgoibar2 - Mondra0.
 Kadeteak, 2. maila: Mondra 7- Tesa3.
 Haurrak: Mondra 1- Soraluze1.
 Hurrengoa:
 2. regionala (kopa): Mondra - Aloña.
 Domekan, 11'30etan
 Emakumeak (kopa): Urretxu - Mondra.
 Domekan, 12etan

Jub. Ohorezko liga: Mondra - Amaika Bat. Zapatuan, 5'45etan
 Kadeteak, 1. maila: Bergara - arrasate. Zapatuan, 4etan
 Kadeteak, 2. maila: Lazkao - Mondra. Domekan, 11'30tan
 Haurrak: Amaro - Mondra. Zapatuan 10'30etan.

Saskibaloia

2. maila, igoera fasea: Arrasate 89 - Askatuak 96
 Hurrengoa:
 2. maila igoera fasea: Getxo - Arrasate. Zapatuan.

Eskubaloia:

Igoera fasea: Gure auzune 19- Arrasate Kirolak 19.
 Hurrengoa:
 Igoera fasea: Arrasate Kirolak - Caja bilbao. Igandea 12etan.

Pilota

Herri artekoa, Antzuola 2- Arrasate 4.
 Nagusiak (22-13), Jubentilak (22-9), Infantilak (1-18)
 Hurrengoa:
 Herri artekoa Arrasate - Donostia. Iturripen 9etan.

BLUSAK OSAGARRIAK POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22 ARRASATE

Tfnoa: 79 15 65

● **Txitxinpe** ●


Berezitasunak:
 Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
 ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Mondragoeko gaztelua

ARRASATE PRESeko azkenengo alean (233. zenb.) Santa Barbarako gaztelua dela eta, Mertxe Urteaga Arkeolaneako adituaren zenbait baieztapen irakurri ahal izan dira. Garrantzitsuenak hauek dira: Eraikuntza tipoa XIV mendean hedatzen hasi zen «Cooper» delakoa dela, jasotzea XI-XII mendeetara aurrera daitekeela, Antso Abarkaren aginduz egina izango zela, bere babesean harresiz inguratutako hiria sortuko zela eta orduan, gazteluak zeregina galdu, eta desagertu egingo zela. Arrasate izena ere eman dio, uste duelako Hiri-agiriak frogatzen duela Arrasaten gaztelua zegoena, eta bere esangura «harresi-ate» dela ere asmatu du.

Eta guztia beste modu batean gertatu izan balitz? Azaleratu diren eraikuntzaren aztarnak XIV mendean Europan ohizkoak izan baziren, nola liteke gure herrian Antso Abarkak (970-994) X mendean, edo beste norbaitek XI edo XII mendeetan gaztelu tipologia berri bat inauguratzea? Beste guztiek 300 edo 400 urte beranduago kopiatu egin ote dute eraikuntza militar tipo hau? Tamainu honetako gaztelutzarra ba-



conno a los que seran daqui adelante para siempre jamas, otorgamosles los ffueros e las ffranquezas que han los de Vitoria en todas cosas». Hiri-agiritik ezin daiteke ondorioztatzea erregeak Arrasate sortu zuenik, ezta Arrasatek gaztelua zuenik ere. Atera daitekeen bakarra zera da: bazela Arrasate izeneko populagune bat, erakunde zabalago batean partaide, Leintze Bailaran hain zuzen; bertako biztanleei eta gero izango zirenei mesede egiteko, Gasteizkoek zeuzkaten foru eta eskubiak eman zizkiela gauza guztietan; eta ostean, Mondragon dei-

litzateke eta dagokigun kasuan urbanismoa eta toponimia lirateke zuzenenak.

Hiria urbanistikoki Ertarotik XX mendera arte ia aldatu barik mantendu da. Mende honen hasierako planoetan ikus daitezke, ia gehikuntza barik, Garibayk XVI mendean deskribitu zituenak: hiribildua, beheko arrabala (Maala), Zarugaldekoa eta Gazteluondokoa. Hortik apartekoa ia despopulatuta agiri da, nekazal etxe batzuk salbu.

Euskal Herriko urbanismoa aztertu dutenek Mondragoekoaz diote, Europako beste edozein hiri

ondo zainduta egoteko (konparatu, bestela, gazteluko eta gordezten diren Ertaroko harresi zatien sendoera eta harlosa iladak).


Toponimia litzateke, berriz, Mondragoe-Arrasate binomioa argituko lukeen giltza. Inguru horretan badira, behintzat, goitik behera hasita: Santa Barbara (1653ko ermita), GAZTELUONDO (gazteluaren ondokoa), Intxaurren (Aretxabaletatik gatzela, hiribildua ikustatzeko lehengo aukera eskaintzen zuena), ARRASATEGAIN (Arrasate Pasealekua, Arrasateren gainean dagoena), eta azkenik ARRASATE.

ARRASATE Euskal Herrian ez da bakarra: Entzia mendikatean, Mendexan, eta Arrasatea eta Arrasategaina, Arabako Contrastan. Etimologikoki bi izenez osatuta dago, ARRAS eta ATE. «Arras» toponimoa ere bada Arrietan, Karrantzan, Lanestosan eta Mena Bailaran. Guztietan sorolurrei deitzeko erabiltzen da. «Ate»k, berriz, Azkueri jarraituz, ohizko azeptiotik aparte, «kanpoa»esan gura du, barruan ez dagoena. Zuzena balitz hipotesia, ARRASATE ez zatekeen Harresi-ate izango, nekazaritzarekin zerikusia zuen parajea baino, sorolurretarako bidea, edo sorolurretatik kanporakoa, baina beti gertu. ARRASATE Deba ibaiaren kontra zegoen erroteraren izena zen. Toponimo honen esparrua hedatzen zen Santa Barbararen hegoaldeko barrenean zehar, Deba (zuzendu aurretik) eta Aramaio ibaien arteko eremuan, Deba ibairantz baskulatuz.

Seinale guztien arabera, Mondragoeko hiribildua sortu zenean, berri-berria, Arrasate despopulatu egin zen, hango biztanleentzat egokiagoa baitzen hirian bizi izatez, babes fisiko eta politikoarekin, Leintze Bailarako agintari zen Oñatiko kontearen menpean baino.

Laburbilduaz zera esan daiteke: Mondragoe eta Arrasate ez direla bat; Santa Barbarako gaztelua Mondragoeko eraiki zuela harresiarekin batera defentsarako sistema egokitu zuenean XIV mendea aurrera zihoala; eta MONDRAGOEKO GAZTELUUA izango zela.

ANA ISABEL UGALDE GOROSTIZA.



zegoen, nola liteke 1179an Nafarroak eta Gaztelak Najeran sinatu zuten itunean ez agertzea, ezta 1200. urtean ere Gipuzkoa eta Araba Gaztelaren menpera pasatu zireneko dokumentuan, zeinean zehazten diren gaztelarrek irabazitako gazteluak, Aitzorroztz esate baterako?

Gaztelako Alfontso Xak 1260an emaniko Hiri-agiriak honela dio: «Por saber que avemos de ffacer bien e merced a todos los pobladores de la puebla que es en Leniz que avie ante nombre de Arrasate a que nos ponemos nombre de Mondragon, tambien a los que agora y son

tuko ziotela.

Zeharka bada ere, gazteluaren lehenengo aipamen idatzia XVI mendean Garibayk egin zuen 1374. urteko gertaera batzuk kondatuz. Sasoi hartan Mondragoeko herria harro sentitzen egin zuen aberastasunagatik eta harresiak eta gazteluak babesten zutelako. Garibayk, segurutik, zutik ezagutuko zituen.

Dokumentazioak ez duenez argitasunik eskaintzen, tipologia XIV mendekoa bada, agertutako txanpona 1260koa, keramika XVeko, eta XVI mendean zutik bazirauen, korapiloa askatzeko beste iturri batzuetara jo beharko

berri modukoa dela, aurrez planifikatua, ez halaeretsi egina. Kalkulatu izan zen, 170 familiarentzat, zabalera bereko 3 kalerekin, kantoiak, atedun harresia, eta bere kontrako erronda kaminoaz.

Mondragoek bizirik iraun gura bazuen (pribilegiaduna zen inguruarekiko eta, horregatik, arriskugarria), derrigorrezkoa zuen defentsa on batez hornituta egotea. Harresi soilak balio zion beheko erasoerik aurre egiteko, baina ez goikoei (Santa Barbarakoei). Egoera horretan, defentsa sistema antolatu zuenean gaztelua eraikiko zuen goiko atearren gainean, beste ate guztiak bezala,

S.F.X. IKASTOLAN R.E.M



Eta zuk ze inbiozu datorren urtien?



Nik, oso garbi daukat: San Frantzisko Xabier Ikastolara fango naz REM ikasten. Gainera, Ferixalekuen, eskola berri-berrixe preparentan dabitz, tailer, mediateka, jangela eta guzti.

ETAPA BERRIXE



Jo, baina ni euskeran ez nabil oso ondo...



Trankil, denondako dauz aukerak!

FERIXALEKUKO IKASTETXE BERRIXEN



Eta zu zela enteratu zara honeaz?



Niri S. F. X. Ikastolako irakasliek esplikatu dustie; fan eta eurekin berba egin, mutil!



IZENEMATE EPEA:
Maiatzaren 4tik 18ra
4etatik 6etara
Tfnoak: 79 41 22 - 79 26 40
ETORRI
GAZTELUONDORA!!

SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA

Anuska Ezkurra

19 urteko zuzendaria

Anuska Ezkurra, Goikobalu Txiki-ko zuzendaria da. 19 urte besterik ez ditu eta ahots inbi-diagarri bat. Ekonomia karrera egiten duen arren, bere kantu ikasketei Italian jarraipena ematea gustatuko litzaioke.

— Zerk eraman du Goikobalu "Goikobalu Txiki" sortzera?

— Goikobaluk bi urte zeramatzan umez osatutako abesbatza sortzeko gogoaz. Duela urtebete, Mikel Arregik, Goikobaluko lehendakariak, behingoz taldea sortzeko erabakia hartu zuen eta orduan, nigana jo zuten.

— Aurretik izan duzu esperimentziarik?

— Katekesi klaseak hartzen zituzten umeei abesti pare bat erakutsi nien behin. Bestalde, momentu hauetan Euskal Herri mailan antolatzen diren abesbatza zuzendari-tzako ikastaroetara joaten naiz larunbatero Donostia-
ra.

— Zuk nola lantzen duzu ahotsa?

— Kantoko klaseak hartzen ditut Arrasate Musikalen Izaskun Murgiarekin: Guztira 6 urte dira eta 5. mailan nago



dagoeneko. Bestalde, lehen esan dudan moduan, Donostiara ere joaten naiz klaseak hartzera.

— Zer egingo duzu Arrasate Musikaleko kantu kurtsoak bukatu ondoren?

— Oraingoz, nik nahi dudan gauza bakarra, Ekonomia karrera bukatzea da; gero? Beno, ba Arrasate Musikaleko ikasketak bukatu ondoren, kantu klaseak hartzera Italiara joatea gustatuko litzaidake, baina ez horretara dedikatzeke, oso zaila baita, baizik eta afizio moduan ezagupen gehiago eukitze-
ko.

— Zergatik Italiara?

— Kantu irakasle eta eskola onenak Italian eta Alemanian daudela esan daiteke eta han kontaktuak

eta lagunak dauzkat gainera, bertan musika edo futbol kontuengatik egondakoa naiz eta.

— Zer moduz moldatzen zara Goikobalu Txikirekin?

— Oso pozik gaude, dagoeneko 75 hurrek eman dute izena eta; egia esan, ez nuen espero: kontutan izan behar da entsaioak zapatuetan izaten direla eta hori gogorra dela umeentzat. Bestalde, inork ez ditu izena ematera behartu, hau da, izena eman dutenek, euren iniziatibaz egin dute eta hori, benetan pozgarria da, beraz, pozik nago: daukadan arazo handiena partiturak bilatzearena da, guztiak oso jorrotuta baitaude: zerbait orijinala-
goa aurkitzen saiatzen naiz.

LABURRAK

Dantzari Nagusien Eguna Antzuolan

Bailarako Dantzari Nagusien eguna, bigarrena, ospatuko da maiatzaren 8an, domekan, Antzuolan. Iaz, Arrasaten izan zen apirilaren 25ean eta urtez urte, herriz aldatzen joango da. Antzuola, Eskoriatza, Oñati, Bergara eta Arrasateko 300 dantzari elkartuko dira guztira.


Egun horren sorrera, bailarako dantza taldeek dituzten dantza-agerraldien eskasian datza. Hau dela eta, 1992. urtean, bailara mailako dantza taldeen ordezkarien bileran erabaki zen urteroko saio bat antolatzea, dantza talde desberdinei irteera bat emateko eta gure herriaren kultura eta folklorea adierazteko. Aurreko urteko arrakasta eskaxa ikusita, herriko biztanle guztiei parte hartzeko deia zabal-tzen zaie. Jakin ezazue, goizeko 10etan emango zaiola hasiera egun berezi honi eta 13.15ak aldera, Antzuolako kaleetan zehar txikiteo alai egingo dutela. Arratsalde partean eta ondo bazkaldu ondoren, 18.30etan erromeria alai izango da herriko plazan. Animatu eta hurbil zaitetz maiatzaren 8an Antzuolara!



ROTULOS
ZABALETA

ERA GUZTIETAKO ROTULOAK

San Lorenzo Industrialdea Tfnoak: (943) 76 57 34 FAX: 76 58 53
Amillaga, 21 (Gasolindegaren parean) BERGARA



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118



Joan den urteko kartel iragarlea eta irabazlea.



Arnaldo Patterson maixua.

San Juanetako kartel lehiaketa

Adi, artista hori! Arrasateko udalak, aurtengo San Juanak iragarriko dituen kartel lehiaketa aukeratzeko antolatu berri du. Ziur ideia bat edo beste izango duzula; hala bada, kartulina bat hartu eta has zaitez zure ideia horiek paper gainean margotzen.

Dena dela, honako puntu hauek izan behar dituzu kontutan ezer egiten hasi baino lehen: Kartelaren neurria, 50 X 70 zm.tako izan behar da eta formatoa, bertikala nahitaez. Teknika, ordea, guztiz librea izango da baina kartelak derrigorrez, "1994 SAN JUAN JAIK ARRASATE" testua eraman behar du. Egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzekaldean lema bat duela aurkeztu behar dira kartelak eta batera, sobre itxi batean lema bera eta egilearen datuak adieraziko dira. Lan guztiak, maiatzaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira eta saritu ez diren kartelekin, erakusketa bat egin daiteke. Badakizuz; irabaziz gero, 100.000 Pta. irabaziko dituzu.

Saltsa Ikastaroa

Gorputza mugitzen hasteko gogoaz bazabiltza, aukera bikaina daukazu orain. Maiatzaren 16tik 20ra bitartean, salsa dantza ikasteko aukera izango duzu Arrasateko kiroldegian. Deba Garaiko Udak Kirol Zerbitzuak antolatu du eta irakaslea, Arnaldo Patterson izango da, esperientzia handiko maixu bikaina eta aurretik ere, Arrasaten klaseak ematen aritua.

Zure ordutegia oso estua bada, jakin ezazu 3 txanda ezberdin antolatu direla. Lehen, goizeko 11etatik 12.30etara, bigarrena, arratsaldeko 6.30etatik 8etara eta hirugarrena 8etatik 9.30etara. Ikastaroaren prezioa edozeinen poltsikora egokitzen da: Aukeako bazkideek 2.000 Pta. besterik ez baitute ordaindu behar eta bazkide ez direnek 3.000 Pta. Izena ematea kiroldegian edo Gazte Zerbitzuan egin dezakezu eta diru sarrera, Deba Garaiko Mankomunitateko kontu korronte honetan: Euskadiko Kutxa, 202.0.00057.8-Arrasate. Informazio gehiagotarako, Musakolako kiroldegira jo dezakezu.

LABURRAK

Abenturazko iharduerak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 15 eta 29 urte bitarteko gazteentzat, abenturazko kirol iharduerak antolatu ditu: raftinga, "hidrospeed"-a, eta beste hainbat gauza egiten ikasteko aukera izango duzu. Eska informazioa Gazte Bulegoan.

"Iraunkor"eko ikastaroak

"Iraunkor"formazio zentru iraunkorrak, zazpi ikastaro interesgarri antolatu ditu Eteo eskolan, "Grafiko Arteak: Harvard Graphics", "Unix Sistema Eragilea" eta "Testu Tratamendua: Word Perfect 5.1 aurreratua" beste batzuen artean. Informatzeko, ETEOra jo.

Ostalaritza Eskolako ikastaroak

Oñatiko Goimailako Ostalaritza Eskolak, hainbat ikastaro interesgarri antolatu ditu honako izenburuok: "Ostalaritza-merkataldegiak kudeatu", "Giza-harremanak eta protokoloa" eta "Gozogintza berezitua: Txokolata" besteak beste. Ikastaroen prezioak, 14.000 eta 26.000 pezeten tartean ibiliko dira. Informazio gehiago lortzeko edo izenematea egiteko, Oñatiko Ostalaritza Eskolara jo beharko duzu.



Ziarrolako
JAIK



- HIZKUNTZ ARAZOAK
- HIZKETA ARAZOAK
- AHOTS ARAZOAK
- IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnua: 79 79 46 • ARRASATE



Argazkia: J. M. Lasagabaster

A

steburu honetan dantzari helduen eguna izango da Anzuolan, eta Arrasateko dan-

tzariei ere deia egin zaie. Ora- in urte mordoska bat, 35 urte inguru, bertan ageri diren batzuk esaten dutenez, erretra- tuko dantza talde hau zuzen- tzen zuen Paulo Zumelagak.

San Juanetan eta jai egu- netan egiten zuten dantzan, eta baita, gogoratzen dutenez, Monterrongo kontearen

etxean ere, atzekaldeko lora- tegian, bisitak zeudenean eta.

Zutik ezkerretik hasita, **Manolo Uranga, Karmen Askasibar, Jose Luis Atxa, Elbiri Villar, Juan Manuel Ugarte, Mari Kar- men Ziardegi, Jabier Zu- billaga, Margarita Zubi- zarreta, Julita Andres** eta

Paulo Zumelaga.


Makurtuta, **Esther Agi- rre, Anton Mendizabal, Mari Karmen Muruamen- diaraz, Txomin Madina- beitia, Ana Mari Bengoa, Norberto Mondragon, Mari Angeles Uribesalgo, Sabin Urrutia** eta **Marisol Agirre.**

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

OHoko 8. maila
amaitzear zauden gazte hori, adi:

ETORKIZUNA, ZUREKIN, EUSKARAZ DATOR!



Despistatu gabe.....eskolan eta kalean

EUSKARAZ HAZI, HEZI eta BIZI!

OHO bukatzerakoan mundu berri bat zabal-tzen zaizu. Zure etorkizunera-ko erabaki garrantzitsu ba-ten aurrean zaudenez, ondo pentsatu, baina,... orain arte bezala, zure geroa eta euska-rarena ziurtatzeko, EUSKA-RAZ IKASTEN JARRAITZE-KO zalantzarik ez izan.

Hurrengo kurtsoan ez duzuerdibiderik, erdaraz (A ereduan) edo euskaraz (D ereduan) ikasiko duzu. Matrikula zaitetz euskaraz, matrikula zaitetz D ereduan. **EZ DESPISTATU**, egin ezazu euskararen eta zure **ETORKIZUNAREN ALDEKO APUSTUA!**



Arrasateko Udala



Arrasate Euskaldun Dezagun

• AIPUA •

Heziketarik gabeko gizakia bere buruaren karikatura da

SCHLEFET

• JEROGLIFIKOA •



Euskal herialde bat

• GURUTZEGRAMA •

| | | | | | | |
|----|---|----|----|----|----|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | | | 9 | | | |
| 10 | | | 11 | | | |
| 12 | | 13 | | | | |
| 14 | | | | 15 | | 16 |
| 17 | | 18 | | | | |
| 19 | | | | | 20 | |

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Zinema, Iturriotz kalean. 5. Euskadi ta Askatasuna. 8. Formaldu. 10. Bete. 11. Alkoholdun edari gozoa. 12. Aintzinako erromataren hizkuntza. 14. Bizidunak eta ingurua ikertzen du. 17. Modu atzikiak. 18. Lotan irudimena sortzen du. 19. Zerbaiti ateratzen zaion fruitua. 20. Arabako indar politikoa.

Bertikalak 1. Arin. 2. Plantxa. 3. Pirinioetan mendirik altuena. 4. Idi hitz elkartuetan. 5. (Ald.) Arka bat eraiki omen zuen. 6. Tiki edo tikiago bihurtu. 7. (Ald.) Garra. 9. (Ald.) Amamaz. 13. Jateko lekadun landare. 15. Alfabetoko zazpigarren letraren izena. 16. Arrasateko Argazkilari Taldea

• HOROSKOPOA •

Aries Noiz arte biziko zara gurasoekin? Jubilatuko arte?

Taurus Eguzkia hartu duzu politagoa egoteko, baina egia esateko tomate itxura duzu.

Gemini Udaberria heldu da eta zuk lore itxura hartu duzu.

Cancer Ez dakit konturatu zaren, baina izazko prakak ez zaizkizu sartzen.

Leo Aste osoan zehar ez dizu inork telefonoz deituko.

Virgo Oso zeurekoia zara, zeure buruan baino ez duzu pentsatzen.

Libra Udako oporretan Asturiasera joan, han aurkituko duzu bizitzako kuttuna.

Scorpio Babak jaten dituzun bakoitzean, ez dago zure alboan egoterik.

Sagitaris Aurten ez duzu lanik izango, baina datorren urtean zorteaz izango duzu.

Capricorn Gero eta mozkor handiagoak hartzen dituzu. Kontuz gibelarekin!

Aquarius Lagun asko dituzu baina zu gazteagoa zara eta hori igartzen da.

Piscis Betaurrekoak jazten ez badituzu, laster ez duzu ezer ikusiko.

ANTZERKIA

TRAPU ZAHARRA Taldea

" TARDE DE SABADO "

Maiatzak 13, ostirala
Gaueko 10,30etan
AMaia Antzokian
Sarrera: 500 Pta.
Gazte txartelarekin: 300 Pta.



ARRASATEKO UDALA

• MARIBI DAVILAREN GOMENDIOA •



Mendira joatea gomendatu nahi liguke Maribik. Bera ez ei da asko joaten, baina noizbehinka buelta bat, gustatzen zaio. Urrutira joan beharrean, nahiago du ingurukoak ezagutzetik has-tea, norbere kontu, eta lagunekin. "Egunpasa joatea gomendatuko nuke, eguraldi honekin gainera, askoz ere hobeto, ...jarraitzen badu". Hasieran perezaz ematen omen du, "baina gora iritsi-takoan merezi du, beraz, bidean ez da pentsatu behar".

• PROGRAMAZIOA •



- 8 Igandea**
20.00etan
Astebete (errep.)
20.30etan
Mondragol
- 9 Astelehena**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
"Kukaratxa Motel" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
Erreportai Berezia: "Marrakech"
- 10 Asteartea**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport (errep.)
14.05etan
"Erreportai Berezia: Marrakech" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan
22.00etan
"Asterix galiarra"
- 11 Asteazkena**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
ATBketan (errep.)
14.05etan
"Asterix galiarra" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00tan
Berriak
21.30etan
Tertulixan
22.00etan
Dokumentala: "Zer da elektrizitatea?; Erleen mundua"
- 12 Osteguna**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Tertulixan (errep.)
14.05etan
Dokumentala (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Xabier Arzallus
22.00etan
Euskal filma: "Lauaxeta"
- 13 Ostirala**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Bakarka (errep.)
14.05etan
"Lauaxeta" (errep.)
19.15etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete. Gaia: Udaleko aurrekontuak.
22.00etan
Haurren filma: "Arturo Erregea"

• KOMIKIA •



Amaitu Mariartu

TXOKO TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

• SOLUZIOAK •

Lapurdi.
JEROLIFIKOA
ASA
Sua, 9. Amonaz, 13. Ibar, 15. Ge, 16.
3. Antxo, 4. It, 5. Noe, 6. Txitin, 7.
Bertikalak 1. Azaleko, 2. Lisakin,
Omrta, 20. UA.
14. Ekologia, 17. Ki, 18. Arnets, 19.
Zintzori, 10. Ase, 11. Ants, 12. Latin.
Hortzontalak 1. Alai, 5. ETA, 8.
GURUTZEGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Pisua alokatu nahi dugu** Arrasaten. Tfnoa: 80 12 97. (Arratsaldezu deitu) Oier.
- **Logela eskaintzen da** bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garaje itxia** alokagai Laubideko urbanizazioan. Tfnoa: 79 19 64. Arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Pisua alokatu nahi baduzu**, neuk badaukat bat. Dei egin 79 80 44 tfnora. Salva.
- **Pisua salgai**. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 komuna, 2 terraza, garajea eta berogailua. Tfnoa: 77 07 91.
- **Erguinen nesken pisu batean** oso gela merkea alokatzen da. Tfnoa: 77 06 25.
- **Torreviejan apartamendua** alokatzen da, bi logela eta igerilekuarekin. Maiatza, ekaina edo uztailerako. Tfnoa: 79 64 50.
- **Hiru pertsona behar dira** pisu eder bat osatzeko. Banakako logelen aukera. Tfnoa: 65 52 98.
- **Garajea salgai** daukat. Iturriotz kalean, 27 znbk.an. Tfnoa: 79 94 40.
- **Garajea salgai Roneon**. Tfnoa: 79 90 50.
- **Arrasaten etxebizitza alokatuko** nieke ikasleei. Hiru logela, egongela, komuna eta sukaldea ditu. Prezio interesgarria. Interesatuok dei egin 79 61 95 tfnora.
- **Ikasle edo langileak** hartuko nituzke erdialdeko etxe berri batean. Tfnoa: 79 80 44. Marian.
- **Pisu bat nahi nuke alokatu**. Ahal bada Erguin auzoan. Tfnoa: 79 65 70.

- **134m²tako etxebizitza salgai**. 7 logela, eguzkitzua, erabat hornitua, 2 komun, berogailua eta ur beroa. Atundu berria. Bista zoragarria. Tfnoa: 77 10 28.

Lana

- **Emakumea garbiketa** lanetarako, edo haur eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73
- **Masajista tituloduna** masaia terapeutikoak, kirol masaia, erlajazio masaia eta masaia metamorfikoak ematen ditu. Tfnoa: 945 - 27 78 44.
- **30 urteko neska** pertsona nagusiak, gaisoak edo elbarrituak zaintzeko prest. Euskara ulertzen dut. Klinikako laguntzaile ikasketak egin da ditut. Tfnoa: 71 40 95. M^a Eugenia.
- **Enpresa lizentziatuak** administrari gisa lan egingo luke edo kontabilitate-matematika edo finantza-matematikazko klaseak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.
- **DBase IV programatzen** dakien pertsona baten laguntza behar dut. Dei egin 79 99 82 tfnora. Miren.
- **Uztaila edo abuztuan** lan egiteko 3 neska prest. Tfnoa: 79 31 48.
- **Taberna salgai**. Guztiz hornitua. Estrenatu gabe. Tfnoa: 79 74 80.
- **Ingelesezko klaseak** emango dizkidan irakaslea aurkitu nahi nuke. 1. REM ikasten ari naiz. Tfnoa: 79 70 73.
- **Emakumea** eskaintzen da, egunean bi orduz lana egiteko. Tfnoa: 79 59 72.
- **OHOko klaseak** emateko prest. Dei egin 79 33

39. 9etatik 11etara. Gauzez.

- **Neska euskalduna** eta esperientziaduna eskaintzen da garbiketarako egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 62 85.

Salerosketak

- **Argazki kamara** saltzen da, automatikoa, 2 objektiboduna. PRAKTIKA Bx20 markakoa. Berria. Interesatuok dei egin 79 49 05. Eurne.
- **Kanping denda familiarra** saltzen dut. Berriberria da. Tfnoa: 79 45 39. Jose Felix.
- **Eskiatzeko buzoa**. 42-44 tailakoa. Berria. Diseinu modernokoa. Prezioa: 10.000 Pta Tfnoa: 79 64 50.
- **2 Oheko logela klasikoa** salgai. Egoera onean. Tfnoa: 78 19 93. Goizeko 11.30etatik aurrera.
- **YAMAHA FZR-600** motorra salgai. Oso egoera onean. Tfnoa: 79 91 59. Xabier. Gauzez.
- **Opel kadett GSI**ko asientoak salgai egoera onean. 50.000 Pta. Tfnoa: 79 29 93. 3.30etatik 19.00etara. Iban.
- **Fagor berogailua** (gas naturalarentzako) berriberria salgai. Tfnoa: 79 59 72.

Denetarik

- **Neskatilaren batek** poltsa bat ahaztuta utzi zuen Gazte Bulegoan, barruan bainujantzia (loraduna), bainu kapela, e.a. dituen.
- **Borda edo lur zati bat** bilatzen ari naiz. Leintz bailara eta inguruetan. Tfnoa: 71 47 10.

Aste Gazte

Bekak:

- 1995ko udan italiara ikasteko bekak. Lizentziatuei nahiz karrerako azken ikasturteko ikasleei zuzendutako. Epea: uztailak 20.
- "Emakunde" Emakumearen Euskal Erakundeak, emakumezkoak esparru guztietan parte hartzera bultzatzeko eta elkartegintza sustatzeko, dirulaguntzaren deialdia egiten du. Epea: maiatzak 20.
- Ogasun eta Ekonomia Ministraritzak "Ikertzaileen

prestakuntzarako VII. beken deialdia egiten du". Lizentziatuei zuzendutako (soziologia, informatika, zuzenbide ikasketak...) Epea: maiatzak 20.

Udalekuak

- Adina: 14-17 urte. Nazioarteko elkarraldatzea, udaleku espezializatuak eta hizkuntz egonaldiak. Izena ematen dutenen artean plazak banatzeko, zozketa egingo da. Izenematea: maiatzaren 13an amaituko da.

Jardunaldiak

- "Jolastuaz pakerako hezi". Astialdiko begirale eta zuzendariei, giza-hezitzaileei, gizarte-laguntzaileei, suspertzaileei suspertzaileei...zuzendua. Izenematea: maiatzaren 10ean amaitzen da.

Lehiaketak

- "Gure Artea Sariak 1994" Eskultura arloan eta Argazkigintzan. Epea: ekainak 6.

"Rockak gazte mantentzen zaitueneko leloan neurona gutxi dituen jendeari zuzendutako ideia simple bat besterik ez da."

WILLY DE VILLE (EL PAIS)



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65



Yolanda Marrodan

Marina

Otalora lizentziatua, 29
Tfnoa: 79 17 19 ARRASATE



Zer eskaintzen duzue Marinan?

Guk zerbitzu desberdinak eskaintzen ditugu. Arrasatear guztiok dagoeneko dakizuen bezala, gure zerbitzuetariko bat ehorztetxearena da; pixka bat gai tabua izan arren, beharrezko zerbitzu bat da, lehenago edo beranduago denoi tokatuko zaigulako.

Zein da zuen eginkizuna gai horretan?

Guk hileta batean behar diren osagai guztiak ditugu. Santa Luzia aseguru etxea eta Euskalduna funerariarekin lan egiten dugu.

Horrelakoetan, inork ez dugu animorik izaten antolaketa lanean ibiltzeko eta horretarako gaude gu.

Asegurutik hasi eta beharrezko diren hilarriak edo panteoiak eta baita koroiak edo sortak eta abar luze bat ere



Zer beste eskaintza duzue?

Beno, beste hauek ez dira hain ezagunak, baina loragintzan denetik egiten dugu.

Gure lana edozein eratako loresortak egitea da.

Ezkontzetako sortak edo elizaren apainketa, oparitarako sortak, edozein txoko, etxeo nahiz enpresatakoak, loraz jazten ditugu.

Eta noski, hiletetarako koroiak, palmak eta sortak.

Noiztik eta zela loragintzan?

Aspaldi hasi ginen; bai niri eta bai nire ahizpei asko gustatu izan zaigu loragintza. Espainiako Loragintza artetan federatuak gara. Jadanik badira 7 urte loragintzan hasi ginela eta Diplomatura lortu genuen; ondoren Aretxabaletako NERIAN loradenda zabaldu genuen.

Gaur egun ere ikasten jarraitzen dugu. Loragintza arte bat da eta bukatu ezinezko ikasgaia, baina oso gauza atsegina.





Garibai, 9 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 03
FAX: 79 14 89

etxeko ekipamendu osoa

a, eme... interiores



210.500
Pta

a, eme... sukaldeak

Zerkaosteta, 3 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE